

# Hileta-zerbitzuen sektorea Euskal Autonomia Erkidegoan

Azterlan juridiko-ekonomikoa eta lehiakoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

EKONOMIA ETA OGASUN  
SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA  
Y HACIENDA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

Lan taldea:

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua :

Jaione Aberasturi Erezuma  
Guillermo Aranzabe Pablos  
Zorione Garitano Azkarraga  
Ainara Herce San Martín

Pricewaterhousecoopers Asesores de Negocios, S.L.

Argitaldia: 1., 2010ko urria

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Ekonomia eta Ogasun Saila

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

# AURKIBIDEA

Orrialdea

1. <a href="#">SARRERA</a> .....	7
2. <a href="#">METODOLOGIA</a> .....	10
3. <a href="#">ARAU-ESPARRUA</a> .....	12
3.1. <a href="#">Estatu mailako araudia</a> .....	13
3.2. <a href="#">Autonomia Erkidego mailako araudia</a> .....	15
3.3. <a href="#">Udal mailako araudia</a> .....	16
3.4. <a href="#">Ondorioak</a> .....	17
4. <a href="#">SEKTOREAREN DESKRIPZIOA</a> .....	19
4.1. <a href="#">Eskariaren eta eskaintzaren egitura</a> .....	20
4.2. <a href="#">Merkatuan parte hartzen duten eragileak</a> .....	24
4.3. <a href="#">Oinarrizko ezaugarriak</a> .....	32
5. <a href="#">MERKATU ADIERAZGARRIA</a> .....	43
5.1. <a href="#">Merkatu adierazgarria produktuaren ikuspuntutik</a> .....	44
5.2. <a href="#">Merkatua adierazgarria geografiaren ikuspuntutik</a> .....	47
6. <a href="#">KONTZENTRAZIOA ETA MERKATUAREN BOTEREA</a> .....	50
6.1. <a href="#">Merkatu adierazgarrietan kontzentrazioa eta boterea</a> .....	52
6.2. <a href="#">Ondorioak</a> .....	61
7. <a href="#">LOTURA DUTEN MERKATUAK. HERIOTZA-ASEGURUA. KONTZENTRAZIOA ETA Merkatuaren Boterea</a> .....	63
7.1. <a href="#">Araba</a> .....	65
7.2. <a href="#">Bizkaia</a> .....	66
7.3. <a href="#">Gipuzkoa</a> .....	67

8. <a href="#">SARRERAKO BARRERAK</a> .....	68
8.1. <a href="#">Legearen arlokoak</a> .....	69
8.2. <a href="#">Tekniko-ekonomiakoak</a> .....	71
8.3. <a href="#">Dagoeneko merkatuan dauden enpresek duten posiziotik sortutakoak</a> .....	73
9. <a href="#">ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK</a> .....	74
9.1. <a href="#">Ondorioak</a> .....	75
9.2. <a href="#">Proposamenak</a> .....	78
ERANSKINAK	
1. <a href="#">EAEn jarduten duten ehortzetxeen zerrenda</a> .....	80
2. <a href="#">EAEn jarduten duten beilatokien zerrenda</a> .....	85
3. <a href="#">Eskualdeak eta bertako udalerriak</a> .....	90

# AURKIBIDEA. KOADROAK, GRAFIKOAK ETA MAPAK

## 4. SEKTOREAREN DESKRIPZIOA

4.1. koadroa	Hileta-zerbitzuen merkatuan parte hartzen duten eragileak.....	24
4.2. koadroa	EAEEn kokaturiko ehorztetxeak.....	25
4.3. koadroa	EAEEn zerbitzuak eskaintzen dituzten Erkidegoz kanpoko ehorztetxeak..	26
4.4. koadroa	Ehorztetxe taldeak eta ehorztetxeak.....	26
4.5. mapa	EAEko hileta-zerbitzuen mapa.....	27
4.6. koadroa	EAEEn jarduten duten heriotza-aseguru esparruko enpresa aipagarrienak eta ehorztetxe partizipatuak.....	28

## 5. MERKATU ADIERAZGARRIA

5.1. grafikoa	Hilotz-zerbitzu merkatua.....	45
5.1. mapa	EAE: merkatu adierazgarriak.....	49

## 6. MERKATUAREN KONTZENTRAZIOA ETA BOTEREA

6.1. koadroa	Errioxa Arabarra eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.....	52
6.2. koadroa	Kantauri Arabarra eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.....	52
6.3. koadroa	Vitoria-Gasteiz eta inguruko eskualdeetan 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.....	53
6.4. koadroa	Bilbo Handia eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.....	53
6.5. koadroa	Plentzia-Mungia eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.....	54
6.6. koadroa	Durangaldean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.....	54

6.7. koadroa	Gernika-Bermeo eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI .....	55
6.8. koadroa	Markina-Ondarroa eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI .....	55
6.9. koadroa	Enkartazioak eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI .....	56
6.10. koadroa	Arratia-Nerbioi eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI .....	56
6.11. koadroa	Donostialdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.....	57
6.12. koadroa	Goierri eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI .....	57
6.13. koadroa	Bidasoa Beherea eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI .....	58
6.14. koadroa	Deba Beherea eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI .....	58
6.15. koadroa	Deba Garaia eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI .....	59
6.16. koadroa	Tolosaldean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI .....	59
6.17. koadroa	Urola-Kosta eskualdean 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI .....	60
6.18. koadroa	2009ko kuotak merkatu adierazgarrietan .....	61

## **7. LOTURA DUTEN MERKATUAK. HERIOTZA-ASEGURUAK KONTZENTRAZIOA ETA MERKATUAREN BOTEREA**

7.1. koadroa	Heriotza-aseguruaren merkatua Araban 2008an.....	65
7.2. koadroa	Heriotza-aseguruaren merkatua Bizkaian 2008an.....	66
7.3. koadroa	Heriotza-aseguruaren merkatua Gipuzkoan 2008an .....	67

## **8. SARRERAKO BARRERAK**

8.1. koadroa	Merkatu adierazgarriak, populazioa, heriotza kopurua. 2007. urtea.....	72
--------------	--	----

SARRERA

# 1. SARRERA

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak lehia bidegarria bultzatzeko, besteak beste, merkatu eta sektore ekonomikoen inguruko azterketak eta ikerketa lanak prestatzen ditu.

Helburu horrekin loturik, azterlan honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE) hileta-zerbitzuen egungo egoera eta beronen lehiaren errealitatea ezagutzea da. Izaera fiskaleko neurriei eta jarduera ekonomikoaren liberalizazioari eta sustapenari buruzko ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuaren xedeetariko bat sektorearen liberalizazioa zen; dagoeneko arau horrek eragina izateko behar besteko denbora igaro da. Araudi aldaketa horren ondorioz enpresa berriak sartu ziren merkatuan edo jadanik merkatuan ari zirenak hedatu egin ziren, horietako batzutan aseguru-etxeek partaidetza zuten. Horrez gain, aldaketaren ondorioz, hileta-zerbitzuak monopolio erregimenean aritu ziren udal enpresa publikoak desagertu zein berregituratu ziren. Horiek horrela, lehia era nabarmenean hazi den edo, kontrara, aurreko monopolioen itxuraldaketa hutsa besterik ez den jazo aztertuko da txosten honetan.

Araudi aldaketarekin batera, hileta-zerbitzuen merkatua bera ere aldatu egin da: beilatoki zerbitzuen erabilpena zabaldu egin da. Lehia defentsaren ikuspegitik, instalazio hori ezinbesteko baliabidetzat jo izan da eta, horrenbestez, beharrezkoa da hura aztertzea egungo egoera kontuan hartuz.

Aldaketa hauek direla eta lehiaren ikuspuntutik hain kasuistika handia duen sektorean haiek izan duten eragina dela eta, egin da ikerketa hau.

Lan honetan hileta-zerbitzuen arau-esparrua aztertzeaz gain, sektorearen deskripzioa ere egin da; azken finean, merkatu adierazgarria zein den finkatu behar da berorren inguruko arriskuak zein lehia desitxura ditzaketen osagaiak antzeman ahal izateko. Bukatzeko, azken atalean, ondorioak eta proposamenak plazaratzen dira.



Azterketa hau egin ahal izateko hainbat erakunde eta instituziok eskainitako informazioa eta elkarlana baliatu da. Denei eskerrak eman nahi dizkiegu, eta, nolana ere, adierazi nahi dugu azterketa honetan azaltzen diren tesiak eta ondorioak txostenaren egileei baino ez dagozkiela.



# METODOLOGIA

## 2. METODOLOGIA

Erabilitako metodologiak bertatik bertara burututako lan sakonean du oinarri. Izan ere, EAEko hileta-zerbitzuekin lotura duten eragileak zuzenean elkarrizketatu dira eta, ostean, bildutako datuen tratamenduari ekin zaio.

Guztira honako hogeita hamar eragile hauek elkarrizketatu dira:

- Hamabost (15) ehorztetxe:
  - Hiru (3) Arabako Lurralde Historikoan.
  - Sei (6) Bizkaiko Lurralde Historikoan.
  - Sei (6) Gipuzkoako Lurralde Historikoan.
- Heriotzen alorrean espezializatutako lau (4) aseguru-etxe.
- Lau (4) Udal.
- Hiru (3) ehorztetxe elkarte (lurralde eta estatu eremukoak).
- Bi (2) Ospitale.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Lurralde Zuzendaritza bi (2).

Horrez gain, lan hori osatzeko sektoreari dagokion araudia eta hainbat informazioa bildu eta aztertu egin da.

Lortutako informazio garrantzitsuena laburbildu, klasifikatu eta analizatu egin da, EAEko hileta-zerbitzuen egoera ezagutzeko eta merkatu adierazgarriak zehaztu ahal izateko.

Ondoren, sektorearen kontzentrazio maila eta enpresek merkatuan duten boterea aztertu da, bertako eragileen merkatu-kuotak eta Herfindhal-Hirschman Indizea (HHI) kalkulatu. Anisia aberasteko, datu horiek heriotza-aseguruen arloan diharduten aseguru-etxeen merkatu kuotekin erlazionatu dira.

Azkenik, sarrerako barrerak landu eta gero, sektore eta lehiari dagozkion ondorioak eta hainbat proposamen jaso dira.



ARAU-ESPARRUA

## 3. ARAU-ESPARRUA

### 3.1. Estatu mailako araudia

- **Apirilaren 2ko 7/1985 Udal Erregimenari buruzko Oinarri Legea (1985.eko apirilak 3ko EAO, 80. zkia.).**

Indarrean sartu zenetik udal Administrazioen inguruko oinarriko araudia erabat eraldatua izan arren, hileta-zerbitzuen sektoreari dagokionez -batez ere, 1996. urtean arlo horretan gertatutako liberalizazioaren ondorioz-, ezinezkoa da sektore horren testuinguru legala eta eskumen erregimena ulertzea berori jatorrian eragin zion arauaren xedapenak aztertu gabe.

Konstituzioak, lege mailako xedapen bidez, botere legegileari oinarriko errekurtsio eta zerbitzuen alorrean erreserba publikoa ezartzea uzten zionez<sup>1</sup>, udal administrazio publikoei hilotz-zerbitzuak monopolio erregimenean eskaintzea baimendu zien. Horiek horrela, hileta-zerbitzuak udal eskumenerako oinarriko izaera zuten zerbitzu publiko bezala jaso ziren eta, ondorioz, udalek edota horiek eratutako sozietateen bidez eskaintzen zituzten, monopolio erregimenean<sup>2</sup>.

Lege-xedapen horren 25.2.j) artikuluan hilerri eta hileta-zerbitzuei buruzko eskumenak halaberrez egikaritzeko betebeharra ezartzen die udalei, betiere estatu zein autonomia erkidego mailako arauak errespetatuz<sup>3</sup>.

- **Ekainaren 7ko 7/1996<sup>4</sup> Errege Lege Dekretua, izaera fiskaleko neurriei eta jarduera ekonomikoaren liberalizazioari eta sustapenari buruzkoa (1996.eko ekainak 8ko EAO, 139. zkia.).**

Lege honek hileta-zerbitzuen sektoreari eragiten zion monopolio-erregimena desagerrarazten du berorren 22. artikulua ezarritakoaren bidez. Aipatutako xedapenak hitzez-hitz hileta-zerbitzuen sektorea liberalizatzeko agindu zuen, baina hala ere Udalei *zerbitzuak eskaintzeko baimena lortzeari baldintzatzea* aukera ematen zien, betiere arau baten bidez aurreikusita bazegoen. Halaberrez, kasuan-kasuko, baimena eman behar zuten -estatu mailako merkatu

<sup>1</sup> Espainiako Konstituzioko 128. artikulua.

<sup>2</sup> *Autonomiaren printzipioa eta bete nahi ziren beharizan zehatzak argitaratzearen ondorioz, ehorzketan ez zegoen udal eskubide eskusiborik, izan ere berorren hedadura objektiboa udalari bakoitzaren erabakiaren menpe zegoen. Udal erakunde bakoitzaren autonomia eta beharriaz ekoizteko egoera heterogeneoak sortu zituzten. Jose Antonio García de Coca, Liberalización de la actividad funeraria.*

<sup>3</sup> UEOLren 25.2.j) artikulua: *Udalerrak halaberrez, eskumenak egikaritzeko dituzten, Estatu eta Autonomi Erkidego mailako arauen arabera, ondorengo arloetan: (...) Hilerri eta hileta-zerbitzuak.*

<sup>4</sup> Ostean Azaroak 18ko, 24/2005 Legea, produktibitatea bultzatzeari buruzkoa eraldatu egin zen.



osoan zerbitzuak ematea ahalbidetzen zuena- baldin eta hileta-zerbitzu emaileek, udal arauak xedatutakoa betez, hilotzak garraiatzeko behar besteko baliabideak zituztela frogatzen bazuten.

Sektorearen liberalizazioa gertatu zen, gai horien gainean udalek estatu eta autonomia erkidego mailako arauak ezarritakoaren arabera zituzten eskumenei kalterik egin gabe.

Ondorioz, 7/1996 Errege Lege Dekretuak ordura arte zegoen egoera zeharo aldatu zuen: hileta-zerbitzuen jardura merkatu askean aritu behar zen, xehetasun bakar batekin: Udalek, udalerrri bakoitzeko esparruan kokaturiko hileta-zerbitzu emaileek bete beharreko baldintza, ezaugarri eta osagaiak ezartzeko ahalmenari eusten zioten, betiere gai horri buruzko xedapen autonomikoak errespetatuz.

- **Urriaren 29ko 6/2004 Errege Dekretu Legegilea, Aseguru Pribatuen Antolamendua eta Ikuskaritzaren Lege Bateratua onesten duena (2004ko azaroak 5eko EAO, 267. zkia.).**

Heriotza-aseguruaren izaera onartzen du aseguruaren alorrean, 6. artikuluan<sup>5</sup> hura definituz.

- **Azaroaren 18ko 24/2005 Legea, produktibitatea bultzatzeko beharrezko diren neurriei buruzkoa (2005eko azaroak 19ko EAO, 277. zkia.).**

7/1996 Errege Lege Dekretuaren 22. artikulua eraldatzen du, hilotzen garraioa liberalizatzeko neurriak ezarriz<sup>6</sup>.

- **Uztailaren 17ko 26/2006 Legea, aseguru eta berraseguru pribatuei buruzkoa (2006.eko uztailak 18ko EAO, 170. zkia.).**

Agentzia kontratuei buruzko arauak zehatza eratzten du aseguru pribatuetan, heriotza-aseguruaren gaineko arau zehatzak ezarriz eta heriotza-aseguruaren agentzia kontratuen eskusibotasunari arreta emanez.

---

<sup>5</sup> APAILBren 6. artikulua: *Prestazioa soilik heriotza kasuetan bermatzen duten aseguru egintzak bameratzen dira, horiek gauzak ordaintzen direnean edo haren zenbatekoak heriotza baten hileta gastuen batzbesteko zenbatekoak gainditzen ez badituzte.*

<sup>6</sup> 7/1996 Errege Lege-Dekretuaren 22. artikulua, Azaroak 18ko, 24/2005 Legeak, produktibitatea bultzatzeko beharrezko diren neurriei buruzkoak emandako erredakzioaren arabera: *Hileta-zerbitzuen prestazioa liberalizatzen da. Hala ere, zerbitzu hauek ematea baimena lortzearen menpe utzi ahal izango dute Udalek. Baimenak erregela-izaera izango du, araua erabiliz galdutako da eta beraien eskumenei egikaritzen Estatu eta Autonomi Erkidegoek zehazten dituzten gutxieneko irizpideak errespetatuz, zehaztu beharko direlarik baimen hori lortzeko gutxieneko baldintzak; bestalde, baimena emango zaie zehaztutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta hilotzak garraiatzeko baliabide materialak dituztela frogatzen dituztenei. Zerbitzua emateko baimenen gutxienekoak xedatzen dituzten arauak ezingo dute sektorearen liberalizazioa balioz gabe uzten duten baldintzak ezarri. Udalengandik aurreko lerrokadak aipatzen duen baimena lortzen duten hileta-zerbitzu emaileak, bertan ezarritako irizpideak errespetatuz, Espainiako lurralde osoan euren funtsezko eginkizunari lotutako jarduerak egikaritu ahal izango dituzte, hilotzen sanitaterako poliziak ezarritako, kasuan-kasuko, arauak betez.*



- **Uztailaren 31ko 1298/2009 Errege Dekretua, Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskaritzari buruzko azaroaren 20ko 2486/1998 Erregelamendua eta Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateen Erregelamendua, abenduaren 27ko 1430/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa, aldatzen dituen (2009.eko abuztuak 1eko EAO, 185. zkoa.).**

APAIE<sup>7</sup> eraldatzen du, 105. bis artikulua bidez heriotza-aseguruetan aseguratuari eman beharreko aurretiazko informazioari buruzko erregimena lantzen du.

- **Abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zerbitzuen jardura bera eta horren egikaritzea askatasunez emateari buruzko Legea egokitzeko zenbait legeren aldaketari buruzkoa (2009.eko abenduak 23ko EAO, 308. zkoa.).**

Hileta-zerbitzuei buruzko 7. xedapen gehigarrian hurrengo ezartzen da: indarrean sartu eta sei hilabetera, Gobernuak ikerketa bat egin ostean beharrezkoak diren arau aldaketak proposatuko ditu; alde batetik, hileta-zerbitzu emailea aukeratzeko askatasuna bermatzeko, heriotza-asegurua kontratatu den kasuetan barne eta, bestalde, indarrean dagoen araudietatik erator litezkeen bestelako oztopoak ezabatzeko.

### **3.2. Autonomia erkidego mailako araudia**

- **Euskal Herriko Autonomia, Estatutuaren 3/1979 abenduak 18, Lege Organikoa (1979.eko abenduak 12ko EAO, 306. zkoa.; 1980.eko urtarrilak 12ko EHAO, 32 zkoa.).**

18.1. artikuluan EAEn eskumena ezartzen da barne osasunari dagokionez Estatuko oinarrizko legeriaren lege-garapenaren eta egikaritzaren gainean. Barne osasun atal generikoak hilotzen sanitate-alderdiei buruzko gaiak barneratzen ditu eta, ondorioz, hileta-zerbitzuen alorra ere bai.

- **Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena (1997.eko uztailak 21eko EHAO, 138 zkoa.).**

Hilotzen Sanitatea Osasun Sailak garatu beharreko jardueren artean jaso zuen, bere interbentzio publikoko ahalmenak erabiltzeko markoan.

---

<sup>7</sup> Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskaritzari buruzko.



• **Martxoaren 9ko 165/1999 Dekretua, otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duena (1999.eko martxoak 26ko EHAO, 59. zkia<sup>8</sup>).**

3/1998 Legean aurreikusten den jarduteko baimena lortzeko betebeharretik salbuesten du *Hileta Jarduerak: errelekurik gabeko hilerriak, hileta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak eta beilatokiak errelekurik ez badute*, nahiz eta aplikagarri diren beste alor batzuetako arau ezberdinek ezarritako baldintzak bete beharko dituzten (adibidez, ingurumenari, osasunari eta segurtasun industrialari dagozkienak...) eta horrez gain, ekainak 11ko 171/1985 Dekretuan, egoitza hiri lurtean kokatu beharreko jarduera gogaikarri, osasunerako kaltegarri zein arriskutsuen gain aplikatu beharreko izaera orokorreko arau teknikoari buruzkoa, aurreikusten diren funtzionamenduari buruzko baldintzetara egokitu beharko dira.

• **202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena (2004.eko azaroak 18ko EHAO 2004, 221. zkia.).**

EAEko Hilotzen Sanitate-alderdien alderik garrantzitsuenak lantzen ditu, hots, hilotzen klasifikazioa osasunaren ikuspuntutik, hilotzak manipulatzeko baldintzen betebeharrak, eta hilotzen nondik norakoa; giza-hondakinen eta hilotzen garraioari buruzko arauak; hilotzak erretzeko baldintzak, hilotzen ehorzketa eta desehorzketa, hilotz eta giza-hondakinak; osasun arloko baimenen erregulazioa; hileta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek eta beilatokiak bete beharreko baldintzak; errelekuen, hilerrien eta lurperatzeko beste toki batzuen garbitasun eta osasun baldintzak eta horiek eraiki, eraberritu eta itxitako baldintzak; ikuskapenarekin lotutakoak eta horien inguruko eskumenak; eta azkenik, hil-osasunari aplikatu beharreko zehapen erregimena.

### 3.3. Udal mailako araudia

Hileta-zerbitzuen sektorean 1996. urtean jazotako liberalizazioaz geroztik, hileta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak udal erakundeen baimena behar dute jardun ahal izateko. Aipatutako baimenak izaera erregelatua du: udalek zehaztu behar dituzte hura lortzeko betekizunak, arauaren bidez, eta baldintza objektiboak bete eta hilotzen garraioa burutzeko behar besteko baliabide materialak dituela frogatzen duten eskatzaileei baimena eman behar zaie<sup>9</sup>. Horrela, baimena ematea irizpide objektiboan menpe dago eta, beraz, udal erakundeei

<sup>8</sup> Zerbitzuei buruzko europar Zuzentaraua dela eta, Euskadiko Ingurumenaren babesari buruzko 3/1998 Legearen Eraldaketa aurreikusten da. Horren ondorioz *errelekuak duten hilerria eta beilatokiak baimena lortzearen menpeko Jarduera klasifikatutzat* joko dira, ordea, *errelekurik gabeko hilerri eta beilatokiak ohartaraztearen menpeko Jarduera klasifikatutzat* joko dira.

<sup>9</sup> 7/1996 Errege Lege Dekretuaren, 22. artikulua, 24/2005 Legeak emandako idazkeraren arabera.



dagokie hileta-zerbitzuetan jardutea helburutzat duten enpresak ezartzeko baimena ematea<sup>10</sup>.

EAEen ehorztetxeen ezarpenak, praktikan, berezitasun bakarra du: ezaugarri bereziak direla eta, jardueraren hasiera, zabalkuntza edo eraldaketa aurrera eramateko Jarduera Baimena Udalek ematen dute. Hiru motatako baimenak ezarri dira, horiek kokatuta dauden ingurumenari eragin diezaioketen neurriaren arabera: klasifikatutako jarduerak<sup>11</sup>, salbuetsitako jarduerak<sup>12</sup> eta salbuetsitako eta sinpletutako jarduerak<sup>13</sup>. *Errelekurik gabeko hileta-jarduerak* salbuetsitako jarduera bezala klasifikatzen diren bitartean, hilerriak *Klasifikatutako Jardueratzat* hartzen dira. Beilatoki<sup>14</sup> eta erreleku<sup>15</sup> kasuan hileta-jarduera bera eragiten duen ezartzeko baldintzen betebeharrarekin lotuta, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren aurretiazko eta aldeko erabakia galdatzen da, osasunari dagokionez autonomia erkidego mailako arauketak eta, zehatzago, hil-osasunaren inguruko arauak xedatutakoari jarraituz.

Horrez gain, udalerriek ezarri ditzakete udal ordenantzak eta erregelamenduak, beraien udal eremuan kokaturiko jarduerari aplikagarri izan liezazkiokeenak, hileta-zerbitzuekin zuzenean loturiko gaietan eta baita Hiri Planeamenduari buruzko gaietan ere.

### 3.4. Ondorioak

Lege-ondorioetarako, hileta-zerbitzuak, generikoki, Sanitateari dagozkio eta, zehazki, hilotzen Sanitateari. EAEko Administrazio Publikoak erabateko eskumena du, bai legedia garatzeko, bai arlo horretan Estatuak agindutako oinarrizko araudia egikaritzeko. Dena den, ez da hileta-zerbitzuen inguruko arautegi zehatzik garatu<sup>16</sup> baizik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamenduaren bidez arautu da. EAEen arlo horren inguruko Ordenantza zehatzak ez dituzten udalerrietan udal hileta-zerbitzuak arautzeko araurik ez dago, ezta arau horiek landuko dituen arau markorik<sup>17</sup>. Halaber, beste Autonomia Erkidego batzuek ez

<sup>10</sup> 202/2004 Dekretua. 30. Artikulua.

<sup>11</sup> Gizakien osasunean edota ingurumenean eragin handiagoa izan dezaketenak. Ikus Euskadiko Ingurumenaren Babesari buruzko 3/1998, Lege Orokorraren II. Eranskina.

<sup>12</sup> Gizakien osasunean edota ingurumenean eragin handiagoa izan dezaketenak. Ikus 3/1998, Legean aurreikusitako jarduera baimena lortzetik salbuetsitako jardueren zerrenda agintzen duen 165/1999, Dekretua.

<sup>13</sup> Gizakien osasunean edota ingurumenean eragin handiagoa izan dezaketenak. Ikus 3/1998, Legean aurreikusitako jarduera baimena lortzetik salbuetsitako jardueren zerrenda agintzen duen 165/1999, Dekretua.

<sup>14</sup> 202/2004, Dekretuaren 36. artikulua–Beilatokiaren sanitate-baimenak.

Beilatoki orok izan beharrekoak:

a) Eratu aurreko baimen administratibo-sanitarioa, Osasun Sailak emandakoa eta udal jarduera-lizentziaren ostekoa; betiere, aurreko artikuluan zehaztutako baldintzak eta betekizunak jasotzen dituen proiektu teknikoa aurkeztu ondoren.  
b) Funtzionamenduko baimen administratibo-sanitarioa, Osasun Sailak emandakoa, hain justu ere eskatutako baldintzak eta betekizunak konplitzen dituela kreditatu ondoren; eta hori ikuskapen-bisita eta geroztiko aldeko txostenean egiaztatuta beharko da.

<sup>15</sup> 202/2004, Dekretuaren 39. artikulua– Errelekuaren sanitate-baimena.

Erreleku orok izan beharrekoak:

a) Sortu aurreko baimen administratibo-sanitarioa, Osasun Sailak emandakoa eta udal jarduera-lizentziaren ostekoa; betiere, erregelamendu honetako 38. artikuluan zehaztutako baldintzak eta betekizunak jasotzen dituen proiektu teknikoa aurkeztu ondoren.  
b) Funtzionamenduko baimen administratibo-sanitarioa, Osasun sailak emandakoa, hain justu ere eskatutako baldintzak eta betekizunak konplitzen dituela kreditatu ondoren; eta hori ikuskapen-bisita eta geroztiko aldeko txostenean egiaztatuta beharko da.

<sup>16</sup> Katalunian adibidez, Hileta-zerbitzuei buruzko apirilak 3ko 2/1997, Legea.

<sup>17</sup> Katalunian adibidez, uztailak 27ko 209/1999, Dekretua Udal hileta-zerbitzuak ordezko izaerarekin arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena.



bezala<sup>18</sup>, ez dago hileta-zerbitzuen erabiltzaileen informazio eskubidea eta interes ekonomikoen babesa xedatzen dituen araurik.

7/1996 Errege Lege Dekretuak eta haren ondorengo eraldaketek ezarritakoa oinarritzat hartuz, Udalek badute ahalmena, betiere Autonomia Erkidegoaren xedapenak errespetatuz, hileta-zerbitzuak ematen dituzten enpresek udalerrri baten kokatu ahal izateko bete beharreko baldintza, osagai eta ezaugarriak ezartzeko. Behin baimenduak izan eta gero, Estatu osoan zerbitzuak emateko ahalmena izango dute enpresa horiek.

EAEEn hileta-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat ezarri ahal izateko, hasteko, zabaltzeko edo eraberritzeko Jarduera Baimena lortu beharra dago. *Errelekurik gabeko jarduerak* salbuetsitako jarduera bezala klasifikatzen dira; Hilerriak *Klasifikaturiko Jardueratzat* jotzen dira.

Beilatoki eta errelekuen kasuan, osasun alorrean eskumenak dituen Eusko Jaurjaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren aurretiazko eta aldeko erabakia beharrezkoa da. Horrez gain, dagokion udal araudiaren garapenaren arabera, bestelako arauak egon litezke: ingurumen, hiri-antolamendu, garraio, etab.ei buruzkoak, hileta-zerbitzuen garapenean eragina izan dezaketenak.

Azkenik, aseguru-erabiltzaile buruzko araudiak, heriotza-aseguruaren espezialitatea jasotzen duenak, hileta-zerbitzuen sektorean badu eragina. Izan ere, aseguru-etxeen eta hirugarrenen artean agentzia kontratuak burutzeko -horiek eskusibotasunezkoak zein ez- berezko berezitasunak ezartzea baimentzeaz ez ezik, hileta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresetan akzioen bidez parte hartzea edo enpresa horien eta aseguru agentzien eginkizunen uztartzea baimentzen du.

---

<sup>18</sup> Gaztela-Leon, Gaztela-Mantxa, Kantabria, Katalunia, Asturias.



# SEKTOREAREN DESKRIPZIOA

## 4. SEKTOREAREN DESKRIPZIOA

### 4.1. Eskariaren eta eskaintzaren egitura

Hileta-zerbitzuen merkatuko eskariaren eta eskaintzaren egiturak dituen hainbat ezaugarri eragin esanguratsua izan dute berorren lehia mailan. Hileta-zerbitzuen ezaugarriek bestelako merkatuetan erreferente den prezioaren eragina ñabartzen dute eta beste elementu batzuek garrantzi berezia hartzen dute.

#### 4.1.1. Eskaria: Ezaugarriak

- **Eskari derrigorrezkoa eta bermatua:** lege-xedapen bati erantzuten dio, bete beharreko osasun-arauei erantzuna emanez.
- **Zerbitzu eskatzailearen informazio eza:** mota honetako zerbitzuei dagokienez, kontsumitzaileak duen aurretiazko ezagutza ezak<sup>19</sup>, bere egoera psikologiko zein emozionalak<sup>20</sup>, heriotzaz gizarteak duen tabu ikuspuntuak, ordurako jadanik heriotza-aseguru bat izateak<sup>21</sup>... hileta-zerbitzuei buruzko produktuen/zerbitzuen ezaugarri, prezio eta baldintzen zein horien beharrari<sup>22</sup> edo osagarritasunari buruz ezjakintasuna eragiten dute. Dena den, informazioaren asimetriak ez du eskatzailea gehiegi arduratzen: kontsumitzaileak hileta-zerbitzuak ematen dituen ehorztetxeak edo aseguru-etxeak xehetasun guztien ardura beregain hartzea espero du eta.

Eskatzaile partikularraren kasuan, enpresa bat edo beste aukeratzekoan, aurretiazko esperientzia edo inertzia du irizpide, kontu ekonomikoak edo logikoak baino.

**Eskaera kuasi-inelastikoa**, ia aldaketarik pairatzen ez duena prezioan gorabeherak eman arren; izan ere, eskatzailearen lehentasuna da zerbitzu horiek era azkar eta eraginkorrean lortzea.

<sup>19</sup> Jakina da gorpuarekin zeozer egin behar dela, baina ez zer den egokia, ez legeak aginduta zer nolako prestazio gehigarriak ematen behar diren.

<sup>20</sup> Horrek, erabakiak arrazionaltasun irizpide zorrotzetan oinarrituta ez erabakitzea dakar, eta horrez gain, tramitea lehenbaitlehen gainditzeko nahia.

<sup>21</sup> Eskatzaileak pentsa dezake heriotz-asegurua izateak ehorztetxe zehatz bat erabiltzea dakarrela, beste aukera batzuk kontuan hartu gabe.

<sup>22</sup> Bereiztu beharra dago benetan beharrezkoak diren zerbitzuak osagarriak edo borondaztekoak diren zerbitzuetatik, lehenengoei osasunarekin lotutako arloetan galdatzen zaizkien betebeharrari erreparatuta. Hileta-zerbitzuen sektoreko enpresek hurrengo zerbitzuak emateko betebeharra dute: medikuak aitortutako heriotza-ziurtagiria eskuratu, heriotza Erregistro-Zibilean inskribatu, hilobiratzeko baimena lortu, hilkutxa eskuratu, hilotza prestatu eta hura hilerri edo errelekura garraiatu eta lurperatu edo erre.

Derrigorrezko jardueren artean, erabiltzaileek euren kabuz soilik burutu ditzakete hurrengoak: medikuak aitortutako heriotza-ziurtagiria eskuratu, heriotza Erregistro-Zibilean inskribatu eta hilobiratzeko baimena lortu.



- **Prezio eta kalitateari buruzko irizpideen eragingarritasun eza:** ezjakintasunaren eta egoera pertsonalaren ondorioz -zeinetan egoera emozionalak garrantzia hartzen baitu-, prezio eta kalitateari buruzko irizpideak ez dira derrigorrez erabakigarriak eta, beraz, ez dute jarduten, modu aipagarrian, beste merkatu batzutan ez bezala.
- **Noizbehinkako eskaera eta ohiko eskaera:** partikularrek gehienetan noizean behin kontratatzen dituzte hileta-zerbitzuak, eta ez behin eta berriro, heriotza-aseguruak saldu eta gauzatzeko beharrezko diren tramiteak burutzen dituzten enpresek ez bezala.
- **Eskariaren premiazko eta berehalako izaera:** derrigorrezkoa ez ezik, zerbitzua bizkortasunez gauzatzea galdatzen zaie enpresei zerbitzu horiek gizarte eta osasun arloan ezartzen dituzten beharizanei erantzuteko<sup>23</sup>. Baldintza horietan zerbitzu bera eskaintzen duen beste hornitzaile bat bilatzeko eta haien arteko konparaketak egiteko aukera eskasa da eta, horrenbestez, egoera hori kontuan hartu ahal izango du ehorztetxeak bere merkataritza estrategiaren disenaitzeko orduan.
- **Toki-izaera:** oro har, eskatzailea ez du jotzen urrutiko enpresa batengana zerbitzuak eskatzeko, baizik eta heriotza gertatu den lekutik edo bizilekutik gertu dagoen batengana.
- **Eskaera, bitartekaritza handikoa eta guztiz zuzendutakoa:** bitartekariak bideratuta (heriotza-aseguruak merkaturatzen dituzten aseguru-etxeak) eta negoziatzerako orduan botere handikoak.

#### 4.1.2. Eskaintza: Ezaugarriak

- **Eskaintzaileak informazioa eskualdatzen du: araututakoa, eskatzailearentzako betebeharr ezezagunekoa eta baldintza emozional berezietan kontratatzen dena.** Horrek zerbitzua eskaintzen duenari edo bitartekoari edukia kontrolatzea errazten dio. Informazio-urritasunak antzeman dira hilotzen sanitateak ezarritako arauak derrigorrezko eta borondatezko zerbitzuen artean bereizteko orduan eta ehorztetxea askatasunez aukeratzekoan. Are gehiago, informazioa urritasunak zerbitzu-emailea zein den identifikatzeko orduan eragina izan dezake, horren inguruan nahastea sortuz<sup>24</sup>.

<sup>23</sup> Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamenduaren 6. artikulua epeak ezartzen ditu horren inguruan, nahiz eta arau orokor bezala, lurperatzea heriotzaren ondorengo 24 eta 48 orduen bitartean egin behar da (Erregistro Zibilar buruzko Legearen 83. artikulua, Erregistro Zibilar buruzko Legearen 276. artikulua). Horrez gain, inskripzioa heriotza gertatu den udalerriko Erregistro Zibilean egin behar da, senideen adierazpenaren ondoren eta behin medikuak ziurtagiria emanda.

<sup>24</sup> *Betikoak gara.*



Zehar-informazioak edo informazio urriak kontsumitzaileari defentsa-gabezia sor diezaioke. Izan ere, gerta liteke hark bere burua behartuta ikustea kontratatuko ez lituzkeen zerbitzu edo produktuak kontratatzerara, baldin eta behar besteko informazioa izan balu edo horrez gain, bultza dezake aurreikusita ez zeukan zerbitzu-emailearekin kontratatzerara.

- **Zenbait jarduera egiteko baimenaren beharra:** zenbait hileta-zerbitzu eman ahal izateko administrazioaren aurretiazko baimena beharrezkoa da eta baimen horiek ugaritu daitezke eskaintzen diren zerbitzuen arabera.
- **Aldakorra:** zerbitzuen eskaintza denboran zehar aldatu egiten da merkatuaren joera berriei erantzun ahal izateko. Joera horien artean aipatzekoa da beilatokiaren erabilera hedatu dela, edo lotura duten merkatuetan, errausketen kopuruan gorakada izan dela ehorzketen kopuruarekin alderatuz.
- **Hileta-zerbitzuen inguruko zerbitzuen integrazioa eta koordinazioa:** hileta-zerbitzuak osotasunean emateko joera dago. Merkatuko eragile ezberdinen arteko harremana estua da.
- **Toki- izaera.**
- **Prezioa:** ez da osagai erabakigarria, baizik eta beste eragile garrantzitsuago batzuek baldintzatzen dute eskaria: ohitura, konfiantza, kokalekua, zerbitzua kontratatzeke denboraren eskasia, zerbitzuei eta burutu beharreko gestioei buruzko ezjakintasuna, zerbitzuaren ezaugarriak. Kontsumitzaileak ez daki zeintzuk diren ohiko prezioak, ez dauka prezioaren arabera erabakitzea ahalbidetuko dion erreferentziarik.

Bertatik bertara burututako lanean ikus daiteke EAEn jazotako hileta bakoitzeko batezbesteko prezioa 1.800€ eta 2.800€ artean dagoela<sup>25</sup>. Normalean, prezioa ez dago gutxienerako mugaren azpitik<sup>26</sup>, baina kontrara badaude gehieneko muga era aipagarrian gainditzen duten kasuak eta batzutan prezioak muga horretatik nahiko urrun egon litezke. Hileten kostua bikoiztu egin zen 1998-2008 urteen bitartean EAEn, 1.783€ko batezbestekoa lortuz<sup>27</sup>.

<sup>25</sup> Bestalde, Consumer aldizkariak 2008. urteko hurrengo datuen ekarpena egiten du.

	Gehiengo prezioa €tan	Gutxiengo prezioa €tan	Aldea €tan
Araba	2.173	1.355	818
Bizkaia	1.962	1.447	515
Gipuzkoa	2.019	1.743	276

Iturria: Consumer Eroski. 2008.

<sup>26</sup> Zeinetan Polloe ehorztetxea kokatzen baita, EAEn jarduten duen udal ehorztetxe bakarra.

<sup>27</sup> Consumer Eroski aldizkariak egindako ikerketa baten arabera. 2008. urteko apirila.



Halaber, tarifak ez daude, oro har, jendearen begien bistan. Enpresek euren baitan soilik erabili beharreko katalogo bat edo prezio aplikagarrien zerrenda bat edukitzea ohikoa da.

Bezeroak azaldutako irizpideen arabera aurrekontu orokorra ematen da, nahiz eta, batzuetan, ehorztetxea bera da -kontrataturiko heriotza-aseguruaren eduki eta hedaduraren arabera- lurperatzearen eduki eta hedadura zein lotutako bestelako zerbitzuak zeintzuk izango diren erabakitzen duena eta, ondorioz, prezioa berak ezartzen duena<sup>28</sup>.

Merkatuaren baitan garatu diren joerek zerbitzuaren kostu totalean eragina izan dute. Zentzu horretan, errausketa aukeratzeko dagoen joerak -lurperatzearen orde- hileta-zerbitzuen batezbesteko kostu osoaren kopurua gutxitzea ekarri du (kasurako zerraldoa arruntagoa da eta, ondorioz, merkeagoa; lore gutxiago eskatzen da, etab.) eta horrez gain, ehorzketagatik edo udal hilerria erabiltzeagatik ez dago udal-tasa ordaintzeko betebeharririk.

Edozelan ere, produktu eta zerbitzuen prezioei dagokienez gardentasun falta sumatzen da.

---

<sup>28</sup> Kasu honetan komenigarria da gogoraraztea hileta-zerbitzuen inguruan interesak dituzten aseguru-etxeek eragiteko duten aukera horien ordainean jaso beharreko prezioari dagokionez, aseguru-primā handiagoak ezarriz, edo interesik gabe ere ohikoak baino prezio txikiagoak lortu daitezke, eskaeraren kontzentrazio maila dela eta.



## 4.2. Merkatuan parte hartzen duten eragileak

### 4.1. koadroa. Hileta-zerbitzuen merkatuan parte hartzen duten eragileak

Eragile	Deskripzioa
Hileta-zerbitzu enpresak	Hileta-zerbitzu hornitzaileak
Partikularrak	Hileta-zerbitzuak enpresarekin zuzenean kontratatzen dituztenak, bitartekaritzarik gabe
Aseguru-etxeak	Hileta-zerbitzu enpresen bezeroak Hileta-zerbitzu enpresen eta bezeroaren arteko bitartekariak Hileta-zerbitzu enpresetako jabeak/akziodunak
Aseguru agenteak	Aseguru-etxeen ordezkariak, heriotza-asegurua enpresan hileta-zerbitzu enpresa izan daitezkeenak
Ospitaleak	Zerbitzuaren eskatzailea lortzeko lekua
Zaharren egoitzak	Zerbitzuaren eskatzailea lortzeko lekua
Administrazio Publikoak	EAEko administrazioa: ikuskatzeko eta arautzeko ahalmena. Udal administrazioa: <ul style="list-style-type: none"><li>– Heriotzen esparruan eskumen eksklusiboa, EAEn osasun kontrolaren menpe</li><li>– Zerbitzuaren emalea: udal enpresa</li><li>– Eskatzailea: zerbitzua pertsona txiroei ematean eragindako gastuak beregain hartuz</li></ul>
Enpresarien Elkartek	Sektore bereko enpresen elkartek
Iturria: Egileak prestatua	

#### 4.2.1. Ehorztetxeak

Hurrengo koadroetan EAEn jarduten duten ehorztetxeak jasotzen dira (Erkidegoan kokaturik egon zein ez) eta zein ehorztetxe taldetan dauden. Merkataritza izena soilik adierazi arren, datu guztiak 1. Eranskinean daude.

#### 4.2. koadroa. EAEn kokaturiko ehorztetxeak, sozietatearen egoitza zein lurraldetan dagoen kontuan hartuta

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Vitoria Gasteiz	Aranguren	Arrasate
P.F. Lauzurica	Arrate	Carmona
P.F. La Virgen Blanca	Basaguren	Etxeberria
	Basauri	Euskalduna
	Bilbaina	Ezponda
	Bizkaia	González
	Cantabrica	Iparaguire
	Carranza	Moyua
	Galarza	Mújica
	Izaro	Polloe
	La Auxiliadora	Nuestra Señora de Begoña
	Larraz	Oroilore
	Lea-Artibai	Oyarbide
	Lekeitia	Santa Isabel
	San Miguel	Orbegozo
	Sarria	Uribealgo
	Servisa	Vascongada
	Umaran	Vascongada (T. Donostialdea)
	Uribe	Oarsoaldea Ehortexea
	Vda. De José Luís de Ibarra	San Felipe Apóstol
	Zulueta	Servicios funerarios Tabisa
		Zarautz

Iturria: Egileak prestatua, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioan oinarrituz



### 4.3. koadroa. EAetik kanpo egon arren, Erkidegoan zerbitzuak ematen dituzten ehorztetxeak

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
S. José, S.L. (Logroño)	Merino (Castro Urdiales, Kantabria)	Maldaerrekea (Lesaka, Nafarroa)
P.F. Pastrana (Logroño)	San José (Colindres, Kantabria)	

Iturria: Egileak prestatua, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioan oinarrituz

### 4.4. koadroa. Ehorztetxe taldeak eta ehorztetxeak


Ehorztetxe taldea	Lotura duten ehorztetxeak
La Auxiliadora	La Auxiliadora, Bilbaína, Funeraria Donostiarra, Funeraria Música
Grupo Euskofunerarias edo Fure SA <sup>29</sup>	Vascongada, Tanatorio Donostialdea, Tabisa, Harrespil, F. Zarautz, Oroilore.

Iturria: Egileak prestatua

<sup>29</sup> FURE SA FUNERARIA VASCONGADA. Ez nahastu FURESarekin.



#### 4.5. Mapa. EAEko hileta-zerbitzuen mapa



## 4.2.2. Aseguru-etxeak

Ondoren EAEn jarduten duten enpresak eta horiekin lotutako ehorztetxeak azaltzen dira.

4.3.4. eta 7. ataletan heriotza-aseguruak merkaturatzen dituzten enpresen ikerketa zehatzagoa egiten da.

## 4.6. koadroa. EAEn jarduten duten heriotza-aseguru esparruko enpresa aipagarrienak eta ehorztetxe partizipatuak

Aseguru-etxea	Lotutako ehorztetxeak
La Previsora Bilbaína	La Auxiliadora, Bilbaína, Funeraria Donostiarra, Mugica
Santa Lucía	N.ª S.ª de Begoña
Seguros Ocaso	Servisa
Mapfre Seguros	
La Preventiva	

Iturria: Egileak prestatua, ICEAk emandako nahiz hileta-zerbitzu enprekin izandako elkarrizketetan lortutako informazioan oinarrituta.

### 4.2.3. Aseguru agenteak

Hainbat hileta-zerbitzu enpresen jabeak, era berean, aseguru-etxe bateko agenteak dira. Kasurako hurrengoak aipa daitezke: Funeraria Aranguren Funeraria Sarria eta Funeraria Larraz (Previsora Bilbaínako agenteak). Agenteak 4.3.4. atalean aztertzen dira.

### 4.2.4. Ospitaleak eta zaharren egoitzak

Heriotzen zati handi bat osasun zentroetan eta zaharren egoitzetan gertatzen da. Beraz, zentro biak ezaugarri komun bat erakusten dute: ahalezko bezeroak lortzeko sarrera puntuak dira.

Ospitaleak eta zaharren egoitzak zeregin garrantzitsua dute. Alde batetik, *barrerazain* bihur daitezke merkatura heltzeko baldintzak ezartzerakoan; bestetik, informazioa ematerakoan zendutako pertsonaren familia eta hileta-zerbitzu emailearen arteko bitartekariak dira. Horren eraginez, merkatuaren lehia arriskuan egon daiteke, zentro hauek merkatu itxi egin dezaketelako, ehorztetxe jakinei mesede edo kalte eginez.

Horrez gain, honelakoak gerta litezke: ehorztetxeak osasun zentroetan edo zaharren egoitzetan bertaratzea bezeroak lortzeko asmoz, bezeroaren egoera benetan sentibera denean<sup>30</sup>, eta zentro horietako langileez baliatzea enpresaren zerbitzuak gomendatzeko komisio baten truk.

Zentroen jarduerak desberdinak izan arren, horietako batzuek<sup>31</sup> protokoloak ezarri dituzte hildakoaren sendiei informazio nahikoa eta neutroa emateko. Edozelan ere, banatze txandak ezartzea ekidin behar da, merkatua bana bailezakete eta, ondorioz, lehiaren aurkako jarduera izan bailiteke.

CNCak proposatutakoaren harira<sup>32</sup>, beharrezkotzat jotzen da zentroek emandako informazioa arautzea eta ehorztetxei honako hauek galaraztea: zentroetan sartzea eta zentroen langileei enpresa horien zerbitzuak gomendatzea. Ildo beretik Trafikoari dagokion arautegian<sup>33</sup> badaude debekuak kalean bezeroak erakartzeko pertsonak edo *saltzaileak* aritzeko<sup>34</sup>.

<sup>30</sup> Hileta-zerbitzu enpresek edozein opakotasun egoera aprobetxatzen dute ospitaletan zaintza eginez, horietan heriotza gehienak gertatzen baitira, ustezko bezeroaren zain, lehiaren arauk alboratuta sasi merkatu baten. Bezeroa bat-batean atzematea momenturik egokienean, bestelako enpresa batzuk topatzeko gogogabetuz. CNC Kontzentrazio ekonomikoari buruzko txostena C85/04 INTUR / EURO STEWART.

<sup>31</sup> Gurutzetako Ospitaleak jarduera-protokolo bat ezarri du, eta horren arabera, Anatomia Patologikoko sailak Lurraldean jarduten duten ehorztetxei buruz informatzen die hildakoaren sendiei (zerrenda bat emanez), zerbitzuaren norainokoa argi izan dezaten gomendatuz eta, baita ere, aholkatuz hiruzpalau ehorztetxei deitzea informazioa lor dezaten.

<sup>32</sup> Hori konpon zitekeen baldin eta, estatu mailako legeriaz ballaturik, behin heriotza gertatuta, zuzeneko sende bati liburuxka bat emateko beharra ezarriko balitz. Horretan gutxienez agertu beharko litzateke zein zerbitzu jaso ditzake sendeak eta horiek eskeini ditzaketen enpresen zerrenda, kontratatzerako orduan telefono zenbaki bat erabiltzea nahikoa izanik. Eskainitako informazioa zenbat eta zehatzago izan, bezeroarentzat hobeto, merkatuko aukeren jakitun izanik, merkatuan eraginez izan ere denek onartuko litzakete joko arau berberak. CNC Kontzentrazio ekonomikoari buruzko txostena C85/04 INTUR / EURO STEWART.

<sup>33</sup> 2272/1985 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, ibilgailuen gidari izan nahi dutenen gaitasun psikofisikoen zehaztu eta gidatzeko arauak eta gidariei arakatzeko egiteko zentroak arautzen duena. (2010eko maiatzaren 3rarte indarrean egon dena)

Art. 11: ... Honako hauek debekatuta daude: komisioak eskaintzea araketa eskatzaileak erakartzeko, tarifetan beherapenak edo gehiegi kobratzea, zerbitzu osagaiak eskaintzea, zuzenean edo zeharka. Zentroen publizitatean funtzioa eta helbidea baino ez jasoko dira.

<sup>34</sup> [http://www.tgdcompetencia.org/expedientes/exp\\_s7\\_2010\\_reconocimientos\\_medico\\_psicotecnicos\\_es.pdf](http://www.tgdcompetencia.org/expedientes/exp_s7_2010_reconocimientos_medico_psicotecnicos_es.pdf)



#### 4.2.5. Administrazio Publikoa

Administrazio publikoak, bai estatukoa, bai autonomoa, bai udalekoa, hileta-zerbitzuen merkatuan parte hartzen dute, arau-emaile, zerbitzu-emaile (udal enpresen bidez) edo zerbitzu horien eskatzaile gisa.

Administrazio ezberdinek norbanakoen interesen eta interes orokorraren arteko oreka bermatu behar dute arauak ematerako orduan. Horrez gain, horien zeregina da merkatuan jarduten duten enpresen arteko diskriminazioa saihestea eta zerbitzu unibertsala egon dadin ziurtatzea.

Hileta-zerbitzuen emaile diren aldetik eta gainontzeko hileta-zerbitzu enpresekin lehia egonda, lehia bideragarriaren ezinbesteko babesa jagon beharko dute eurek sorturiko udal enpresaren mesederako jarduerak saihestuz.

Halaber, Administrazio Publikoak beraien erakunde bidez, hileta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen bezero<sup>35</sup> bilakatzen dira ehorzketaren inguruko izapidetzek eskatzen dituzten heinean: DYA, Anatomia-Auzitegiko Institutua, instantzia judizialak, gizarte-zerbitzuak etab. Noizean behin, zerbitzu hau hileta-enpresa zehatz bati esleitzen zaio. Enpresa horrentzat zerbitzuaren esleipenak errentagarritasun urria ekarri arren, zerbitzu partikularrak erakartzeko iturria bilakatzen da, izan ere hildakoak aseguratik ez badu, litekeena da zerbitzua biltze judiziala burutzen duen ehorztetxeak ematea. Beraz, ulertzeko modukoa da ehorztetxeek zerbitzu horien esleipenak lortzeko izan ohi duten interesa<sup>36</sup>.

Dena den, hileta-zerbitzuen kontratazioaren kasuan, erakunde publiko ezberdinek duten funtzionamendua ez da homogenea<sup>37</sup>, eta ospitaleak eta zaharren egoitzetan bezala, merkatua banatzen duten txandak ezartzea ekidin behar da.

---

<sup>35</sup> 202/2004 Dekretuaren 34. artikulua: *Behartsuentzako hileta-zerbitzuak. Euren udal-mugartean hiltzen diren behartsuentzako hileta-zerbitzuen kostuak euren gain hartu beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko udalek.*

<sup>36</sup> CNC C85/04 INTUR/EURO STEWART Esp..

<sup>37</sup> Vitoria-Gasteiz hirian jarduten duten hiru ehorztetxe zaintza-txandak egiten dituzte -eremu publikoko zerbitzuak modu parekidean banatuz-. Bizkaian, ordea, ehorztetxe zehatza erabiltzea da joera. Gipuzkoan, aldiz, zaintza-txandak egiten dira.



#### 4.2.6. Enpresarien elkarteak

AFUES: Asociación Funeraria de España. 1991. urtean eratu zen eta hileta-zerbitzuen sektoreko elkarerik garrantzitsuena da, izan ere horren baitan daude hileta-zerbitzu enpresa txiki eta ertain gehienak.

PANASEF: Asociación Nacional de Servicios Funerarios. 90. hamarkadaren hasieran sortu zen, hileta-zerbitzu nahiz hilerri-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen interes komunak ordezkatu eta babesten ditu.

FCM: Udal Ehorztetxe eta Hilerrien Elkartearen. Helburua zerbitzu horren balioa zein etika gorde eta zaintzea da.

ASEFUGI: Gipuzkoako Hileta-Zerbitzuen Elkarte.

AESFB: Hileta-zerbitzuak ematen dituzten Bizkaiko Enpresen Elkarte.



### 4.3. Oinarrizko ezaugarriak

EAEko hileta-zerbitzuen sektorean hurrengo lau ezaugarriak bereizten dira:

4.3.1. Egitura desberdina Lurralde Historikoaren arabera: orografiaren eta biztanle-dentsitatearen garrantzia.

4.3.2. Ohiko enpresak eta enpresa taldeak.

4.3.3. Enpresa publikoen presentzia urria 1996. urteko liberalizazio prozesuaz geroztik.

4.3.4. Lotura duten merkatuen eragina.

4.3.4.1 Heriotza-aseguruak eskaintzen dituzten aseguru-etxeen eragina.

4.3.4.2 Hilotzen inguruko gainontzeko zerbitzuen eragina.

#### 4.3.1. Egitura desberdina Lurralde Historikoaren arabera: orografiaren eta biztanle-dentsitatearen garrantzia

Orografia eta biztanleriaren inguruan Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak dituzten desberdintasunek, modu nabarmenean eragiten diote Lurralde bakoitzean eskaintzen diren hileta-zerbitzuen egiturari.

Bizkaiko eta Gipuzkoako orografia menditsua eta haran estukoa da. Biztanle dentsitateari dagokionez, handia<sup>38</sup> da, eta nolabaiteko oreka dute lurraldez-lurralde<sup>39</sup>. Araban, ordea, biztanleriaren %75a hiriburuan bizi da<sup>40</sup>, Vitoria-Gasteizen, hain zuzen ere, eta haren biztanle-dentsitatea 100,7 biztanle/km<sup>2</sup>koa<sup>41</sup> da.

Lurraldez-lurraldeko egituraren ezberdintasunak merkatuaren banaketa ezberdinak sortzen ditu: Bizkaiak eta Gipuzkoak ehorztetxe ezberdinak dituzte eskualdeka, ohiko zein famili izaerakoak, eta baita enpresa taldeak ere. Araban, ordea, Vitoria-Gasteiz hiriburuan kokatzen dira Lurralde osoko 3 ehorztetxeak: Funeraria Vitoria-Gasteiz, Funeraria Lauzurika eta Funeraria Virgen Blanca. Kantauri Arabarra eta Errioxa Arabarra eskualdeetan, aldiz, Bizkaia nahiz Logroñotik ematen da zerbitzua.

<sup>38</sup> Bizkaiak: 512,8 biztanle/km<sup>2</sup>, Gipuzkoan: 346,8 biztanle/km<sup>2</sup>. Iturria: EUSTAT.

<sup>39</sup> Gipuzkoa: Donostia-San Sebastián (biztanleriaren %26), jarraian Irun (%8,4). Gainontzeko %43a honela banatzen da: 10.000 biztanletik gorako herritan (8 herri), 15.000 biztanle (5) eta 20.000 biztanle (4). Iturria: EUSTAT.

Bizkaia: Bilbo (biztanleriaren %31), jarraian Barakaldo (%8,5). Gainontzeko %54a honela banatzen da: 5.000 biztanletik gorako herritan banatzen da (14 herri), 10.000 biztanle (3), 15.000 biztanle (5), 20.000 biztanle (5) y 40.000 biztanle (3). Iturria: EUSTAT.

<sup>40</sup> Bigarren herrialdea biztanle kopuruari dagokionez, Ludio/Llodio herriak, hain zuzen ere, 18.389 biztanle ditu (Arabako biztanleriaren %6a); hirugarrenak, Lurralde horretako biztanleriaren %3,2a eta laugarrenak, %1,5a. Iturria: EUSTAT.

<sup>41</sup> Iturria: EUSTAT.



### 4.3.2. Ohiko enpresak eta enpresa taldeak

Ohiturak, orografiak eta zerbitzuaren berezko ezaugarriek toki-izaera ematen diote merkatuari, eremu zehatzetan monopolioen sorrera erraztuz: eskualdea bera kokatuta dagoen lurraldearekiko atxikipena EAeko hileta-zerbitzuen sektorearen ezaugarria da. Alabaina, biztanle dentsitate handieneko eremutan, aipatu ohiko enpresa horiek enpresa talde bilakatu eta elkarren artean merkaturak lortzeko norgehiagokan ari dira. Lehia hau logikoa da zeren eta hileta-zerbitzuak enpresa batek baino gehiagok eman ahal izateko merkatuak nolabaiteko neurria izan behar duen eta, ondorioz, errentagarria izan behar du eragile berri batek merkatuan sartu eta sarrerako kostuak jasateko.

Azken urteetan lehenago aipatutako dikotomia (biztanle-masa urria dagoen lekuetan ohiko ehorztetxea nagusi izatea; biztanle-masa handiko lekuetan, aldiz, enpresa taldeak nagusi) apurtzen hasia da, itxuraz ez bada ere, bai mamiari helduta. Enpresa taldeek ohiko toki merkatuetan ari diren enpresak bereganatu, horietan partaidetza hartu edo ehorztetxeak sortu dituzte<sup>42</sup> eta sektore horrekin lotuta dauden merkatuari zuzendutako zerbitzuak -kasurako errelekuak emanikoak- eskaintzen hasi dira. Prozesu guztiaren, maila bakoitzean eskaintako zerbitzuen integrazioak<sup>43</sup> hilotz- eta hileta-zerbitzuen inguruan jazotako gertakaririk aipagarrienetarikoa izan da.

Azken aldian ere, eskala-ekonomiek eraginda<sup>44</sup> hainbat enpresa taldeak sortu dira, merkaturak aspalditik talde txikitan antolatuta egon arren eta nahiz eta, iraganean merkatuaren toki-izaerak enpresa menperatzailerik izatea oztopatu egin duen. Joera horrek eragin dezakeen arazorik garrantzitsuena da merkaturak larregi kontzentratzea, horrek dakarren abusatzeko arriskuarekin lehiaren gutxitzea<sup>45</sup>.

Geroago ere azalduko den arren, dikotomia hau, alegia ohiko enpresen eta enpresa taldeen artekoa, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoan gertatzen da. Esan bezala, Araban ehorztetxeak hiriburuan biltzen dira.

<sup>42</sup> Funeuskadi taldeak adibidez, Funeraria Múgica du Deba Behera eskualdean, Urola Kosta eskualdean, aldiz, Euskofunerarias taldeko Funeraria Zarautz ehorztetxea jarduten du.

<sup>43</sup> Gorpuaren atontzearekin hasita hilerriarekin zein errelekuarekin lotutako zerbitzuak eman arte.

<sup>44</sup> Hileta-zerbitzuaren prestazioak dituen ezaugarriengatik, horientzako oso egokia da eskala-ekonomien sorrera, zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzten hornitzaileak talde handiagotan bilduz lortzen dena.

<sup>45</sup> Horrexegatik, Lehiaren Nazio Batzordeak, LNB, mesfidantza erakutsi du aztertu dituen ehorztetxeek elkarri laguntzeko asmatu dituzten formulekiko. Bestalde, zenbait ikerketek (New York City Departments of Consumer Affairs, *The High cost of dying*) arazoaren txarragozueaz ohartarazten dute, izan ere zenbait kasutan ehorztetxe batzuek, horien benetako jabeen nortasuna izkututzen dute.



Bizkaian 1996. urteko liberalizazioaz geroztik, tamaina handiko<sup>46</sup> Bilbo Handi eskualdean<sup>47</sup> hiru ehorztetxe talde aritu ziren: Funeuskadi<sup>48</sup> taldea (Funeraria Bilbaína eta Funeraria La Auxiliadorak, besteak beste, osatuta), Servisa<sup>49</sup> eta Funeraria Tanatorio Bizkaia<sup>50</sup>.

Bizkaiko gainontzeko eskualdetan, oro har, udalerrri edo eskualde bakoitzean aspaldi finkaturiko ehorztetxea da bertako hiletaz arduratzen dena. Enpresak familiarrak dira, tamaina txikikoak eta enpresa taldeetatik at.

Hala ere, azken urteotan oinarrizko egitura honetan aldaketak antzematen dira: enpresa taldeek gero eta gehiago aritu dira ohiko enpresek soilik jarduten zuten merkatuetan, adibidez, Durangaldean Servisa eta Funeraria Bizkaia ezarri dira, eta Plentzia-Mungia eskualdean, aldiz, Funeuskadi, Servisa eta Funeraria Bizkaia.

Bizkaiko egitura areagotu egiten da Gipuzkoan. Donostian, Irunen eta udalerrri bien artean dagoen korridorean (Lurralde Historiko horretako biztanle kopururik handiena biltzen den eremuan, hain zuzen) enpresa talde ezberdinak ari dira lehian: Euskofunerarias edo Fure SA<sup>51</sup>, Funeraria Vascongadaren ehorztetxe eskutik parte hartzen duena, Funeraria Donostiarraren ehorztetxearen bidez jarduten duen Funeuskadi taldea eta Polloe udal ehorztetxea. Bestalde, ohiko enpresa txikiak eskualde ezberdinetan kokatzen dira.

Gipuzkoan, alde batetik, elementu bereizle ditugu Polloe udal ehorztetxea<sup>52</sup> eta, bestetik, eskualde batzuen egoera. Deba Behera eskualdean, batez ere, Eibarko udalerrian aurki daitezke *usadiozko* ehorztetxe erara Funeraria Múgica, Funeuskadi taldekoa, eta Seguros Santa Lucía-Albia aseguru-etxe taldeko Funeraria Nuestra Señora de Begoña ehorztetxea, ehorztetxe biak enpresa taldeetako partaide direnak. Horrez gain, Urola Kostako eta Deba Garaia eskualdeen egoera kontuan izan behar da: Urola Kostan, Euskofunerarias taldeak dihardu Funeraria Zarautz ehorztetxea bitartez eta Deba Garaian, Euskofunerarias taldeak ematen ditu hileta-zerbitzuak Funeraria Oroilore ehorztetxeren bidez.

---

<sup>46</sup> Bilbon 350.000 biztanle, gutxi-gora-behera, eta milioi bat inguru Bilbo-Handian; 2006. urtean. Iturria: EUSTAT.

<sup>47</sup> Getxoko udala moduko salbuespenekin, bertan Funeraria Sarriak (Funeuskadirekin lotura duena akzioen bidez) jarduten baitu tradiziozko ehorztetxe moduan.

<sup>48</sup> Funeuskadi taldeak, besteak beste, Funeraria La Auxiliadora barneratzen du eta Funeraria Bilbaínak -Bilbo-Handia eskualdean parte hartze garrantzitsua duena-, Funeraria Mugica -Deba Behera duena parte hartze garrantzitsua-, azkenik Funeraria Donostiarrak -Donostia-San Sebastián hirian kokatutako ehorztetxea. Previsoría Bilbaína aseguru-etxearekin harreman estua du. Grupo Azkaran taldekoak dira.

<sup>49</sup> Ocaso aseguru-etxe taldeko ehorztetxea.

<sup>50</sup> Aseguru-etxeekiko inpedentzia mantenduz jarduten duen enpresa eta Ezkerraldea nezaguna eta ondo errotutakoa. Bilbo Handiko Ezkerraldeko hiru udalerrri ezberdinetako beste hainbeste ehorztetxek hartzen du parte (Barakaldo, Santurtzi eta Sestao) A.I.E. bezala egituraturakoak. Horrez gain, ordezkartzak ditu Durangon eta Zornotzan. Funeraria Tanatorio Bizkaia modernizazioari, eboluzioari, etengabeko hobekuntzari eta kalitate irizpideak ezartzeari buruzko aipamen ugari ditu.

<sup>51</sup> Euskofunerarias taldeak edo Fure sak biltzen ditu bere baitan, besteak beste, Landarri, Tabisa, Funeraria Vascongada edo Tadosa enpresak, hileta-zerbitzuak eta hilerrien kudeaketaz (Gipuzkoako 20 udalerritan ari da) arduratzen direnak. Talde horrek harremanak, ditu aseguruaren sektorearekin, bere kideen bidez.

<sup>52</sup> Servicios Funerarios de Donostia-San Sebastián, S.A. udal sozietatea 2000. urtean eratu zen, Udalak hileta-zerbitzuen prestazioa berriro bere gain hartzea erabaki zuenean, izan ere ordurarte fundazio pribatu batek ematen zuen administrazio-emakida erregimenean.



Bizkaia eta Gipuzkoa Lurralde Historikoekin konparatuz, Arabako antolaketa geografiko nahiz demografikoak hiru eremu itxuratzen ditu hileta-zerbitzuen inguruan:

- Kantauri Arabarra eskualdean<sup>53</sup> Funeraria Larraz ehorztetxeak zerbitzuak eskaintzen ditu, ia modu eksklusiboan.
- Errioxa Arabarra eskualdea<sup>54</sup>, Vitoria-Gasteiz hiriburutik urrun xamar eta Logroñotik gertu dagoenez, Logroñoeko Funeraria Pastrana ehorztetxeak zerbitzuak eskaintzen ditu, ia modu eksklusiboan.
- Vitoria-Gasteiz eta Arabako gainontzeko eskualdeak<sup>55</sup>. Arabako hiriburuan, Lurralde Historiko horretan kokaturiko hiru ehorztetxeak elkartzen dira: Funeraria Vitoria-Gasteiz, Funeraria Lauzurika eta Funeraria Virgen Blanca.

#### 4.3.3. 1996. urteko liberalizazio prozesuaren ostean enpresa publikoek izandako presentzia urria

1996. urteko liberalizazioa eman arte, Bilbo eta Donostia-San Sebastian hirien udal enpresa publikoek hileta-zerbitzuak eskaintzen zituzten, monopolio erregimenean. Liberalizazioaz geroztik, ordea, ehorztetxe publiko eta pribatuen arteko gora-beherak -tartean prozedura judizialak direla medio<sup>56</sup>- eragin dute 2010. urtean Donostia-San Sebastian hiriko Funeraria Polloe<sup>57</sup> udal ehorztetxe<sup>58</sup> bakarra<sup>59</sup> izatea. Hala ere, Polloek beronen egituraketan aldaketa batzuei egin beharko die aurre EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2010. urtean emandako sententzia baten ondorioz. Bilbori dagokionez, prozesu korapilatsu baten ondoren<sup>60</sup>, egungo, Servicios Funerarios de Bilbao, S.L. udal enpresak era eksklusiboan kudeatzen du udal-hilerria.

7/1996 Errege Lege Dekretuaren prestaketarekin eta indarrean jartzearekin batera, 1995 eta 1996ko urteetan, gutxienez, 8<sup>61</sup> enpresa sortu ziren. Sozietate horien xedea hileta-zerbitzuak

<sup>53</sup> Amurrio, Artziniaga, Aiara, Laudio eta Orondo herriak hartzen ditu, guztira 33.677 bizilagunez osatutakoa 2007. urtean. Iturria EUSTAT.

<sup>54</sup> Mañueta, Eltziego, Bilar, Kripan, Labastida, Laguardia, Lantziago, Lapuebla de Labarca, Moreda de Álava, Navaridas, Oyón-Oion, Samaniego, Eskuernaga, lekora herriak hartzen ditu, guztira 10.853 bizilagunez osatutakoa, 2007. urtean. Iturria EUSTAT.

<sup>55</sup> Arabako Lautada, Gorbeia mendia-ingurua, Arabako Mendiak, Arabako Haranak.

<sup>56</sup> Asociación de Empresas Funerarias de Gipuzkoa/Gipuzkoako Hileta-zerbitzu Enpresen Elkarteak (ASEFUGI) judizio bidezko prozedurak hasi ditu Polloe udal ehorztetxeak ematen zituen beilatoki, nekroestetika, zerraldoen salmenta eta garraiatze zerbitzuak direla eta, hileta-merkatuaren lehia askea kaltetzen zutelakotan. Erabaki judizialak ASEFUGIko kideen aldekoak izan dira lehenengo eta bigarren Auzialdian. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak 2010. urtean deuseztagarritzat jo ditu Polloe udal sozietateak eskaintzen zituen zenbait zerbitzu (beilatokiaren kudeaketa nahiz ustiapena, hilkutxeren hornikuntza...) eta, ondorioz, udal enpresa hori bere itxuraketa aldatzera behartu du.

<sup>57</sup> Donostian izan ezik, Udaletxe batek zuzenean nahiz zeharka hileta-jarduerak burutzen baditu, haren enpresa kudeatzailea izaten da merkatuaren jaun eta jabe. Kontu Auzitegia. Informe de fiscalización de la gestión de servicios funerarios y de cementerios.

<sup>58</sup> Horrez gain, udaleko hilerriaren eta errelekuaren kudeaketa daramatza.

<sup>59</sup> BLAIA-IRUNGO UDAL HILETA ZERBITZUAK - SERVICIOS FUNERARIOS MUNICIPALES DE IRUN, S.A., Iruneko udal enpresa, bere Estatutuetan jaso egiten du hileta-zerbitzuak eskaintzea baduela baina ez du egiten.  
<http://www.irun.org/docs/gene/normas/estatu/es1a15-1.doc?NoCache=0%2C8172528>

<sup>60</sup> 1997. urtean Udalak konkurtso baterako deialdia egin zuen hileta-zerbitzuetarako bazkide bat aukeratzeko asmoz, ordura arte udal zerbitzua zena pribatizatu eta gero. 1997. urteko urrian Udala elkartu egin zen Europea de Finanzas, S.A. sozietatearekin, Funespañaren sozietate instrumentala eta sektoreko liderra. 2003. urtean ordea, Udalak eta Funespañak indarrak gabe utzi zuten sozietate hori, nahiz eta hasiera batean 50 urtez indarrean egoteko sortu zen.

<sup>61</sup> Funeraria Vitoria-Gasteiz, S.L.; Tanatorio Armentia, S.L.; Funeraria Múgica, S.L.; Landarri, S.L.; Funeraria Bilbaina, S.A.; Funeraria Larraz, S.L.; Iزارo Funeraria Tanatorio, S.A.; Tanatorio de Bizkaia, S.L.. Iturria: SABI Datu basea (Sistema de Análisis de Balances Ibéricos).



ematea zen bai modu integralean, bai beilatoki-zerbitzuen eskaintzaren bidez, zein hilerri nahiz errelekuen kudeaketaren bidez.

1996. urteko liberalizazioaz geroztik enpresa publikorik gabeko udalerrietan ohiko ehorztetxeek merkatuan jarduten jarraitu zuten bitartean, udal ehorztetxea zegoen udalerrietan -hain zuzen ere, biztanle-masarik handiena zuten herriak- sektorearen liberalizazioak lehia areagotu zuen. Horrez gain, liberalizazioak enpresa berriak merkatuan aritzea eragin zuen.

#### **4.3.4. Lotura duten merkatuen eragina**

Beste merkatu batzuk eratzen dituzten produktu nahiz zerbitzuek eragina dute hileta-zerbitzuengan. Produktu eta zerbitzu horiek, gainera, elkarrekin lotuta egon daitezke; hori dela eta hileta-zerbitzuekiko lotura duten merkatu bihurtzen dira. Merkatuen arteko lotura horren ondorioz, merkatu horien jardunak hileta-zerbitzuak baldintza ditzake edo hauek haietan eragin garrantzitsua izan. EAEn nabarmentzen dira hileta-zerbitzuen merkatuaren eta heriotza-aseguruaren eta errelekuen merkatuaren artean sortu diren loturak.

##### **4.3.4.1. Heriotza-aseguruaren merkatuaren eragina**

EAEn biztanleriaren %43ak<sup>62</sup> heriotza-aseguru bat kontratatu du. Portzentaia hori hiriguneetan handiagoa da<sup>63</sup>. Kontratazio kopuruari esker heriotza-aseguruak merkaturatzen duten aseguru-etxeek<sup>64</sup> hileta-aseguruaren merkatuari eragin diezaioke, bai haien eskari-ahalmenaren bidez, bai hileta-zerbitzuak ematen dituzten enprekin dituzten akordioen edo enpresa horietan duten partaidetzaren bidez.

###### **4.3.4.1.1. Eskari-ahalmena**

Aseguru-etxeek eurekin aseguraturuta dauden pertsonen hileta-zerbitzuen eskaria bideratzen dute, aseguraturuek gestioak aseguru-etxeen esku uzten baitituzte, inguruabar bereziak direla eta, ezjakintasunagatik edota tramiteak beregain ez hartzeagatik. Horrez gain, prestazioaren baldintzak polizan ezarritakoak dira eta onuradunaren jarrera guztiz pasiboa da, ez baita haren parte hartzea aurreikusten hileta-zerbitzuen kontratazioan eta ez baitaio modu aktiboan informaziorik ematen, bestelako ehorztetxe edo enpresa batzuekin –aseguru-etxeak proposaturikoez gain- kontratatzeko duen aukeraz.

<sup>62</sup> UNESPA. Memoria social del seguro español 2008. El seguro de deceso en los hogares españoles.

<sup>63</sup> Aseguru-etxeek elkarriketetan adierazitakoaren arabera.

<sup>64</sup> Urriak 29ko, 6/2004 Legegintzako Errege Dekretu, 6.1. a) 19 artikuluan, dio heriotza-aseguruaren alorrak hurrengo aseguru jarduerak barnatzen dituela: heriotza gertatzen den kasuetan soilik bermatzen dituztenak, prestazio horiek gauzak ordaintzen direnean edo horien zenbatekoak heriotza batek eragindako gastuen batzbesteko balioa gaintzen ez dutenean.



Ondorioz, heriotza-aseguruaren ezarpen maila handiak eskaria bateratzea eta merkatuaren zati baterako sarrera kontrolaturik egotea dakartza. Gauzak horrela, aseguru-etxeak badute erabateko<sup>65</sup> negoziazioa burutzea ehorztetxeekin. Hori ez ezik, hornitzailez aldatzeko duen ahalmenaz baliatu daitezke, tokiko ehorztetxeak lehia abantailarik ez badu. Hileta-zerbitzuei dagokienez, jarduera hauek aseguru-etxeek, lore-dendekin, marmolariekin, hilotzen inguruko higigarriekin, etab. dituzten bestelako hitzarmen eta akordioetara zabaltzen da<sup>66</sup>.

Hala ere, aseguru-etxeak aurre egin diezaiok<sup>67</sup> ehorztetxearen botereari, izan ere zaila izango da garrantzirik gabeko prestazioak kontratatzea ezjakintasunaren edo ahultasun emozionalaren eraginez.

EAEn, 60<sup>68</sup> aseguru-etxek baimena izan arren, horietako bostek eskaintza ia osoa biltzen dute. Hain zuzen ere, ICEAren arabera<sup>69</sup>, heriotza-aseguruaren alorreko aseguru-etxerik garrantzitsuenak negoziarioaren tamaina kontuan hartuz gero (eragindako prima kopurua) hurrengoak dira: Seguros Santa Lucía, Ocaso eta MAPFRE. Aipaturakoei Previsora Bilbaína eta Preventiva gehituz gero, bost horien artean EAEn heriotza-aseguruaren merkatu kuotaren %90a<sup>70</sup> baino gehiago batzen dute.

Bertatik bertara burututako lanari kasu egiten badiogu, ia kasu guztietan, aseguraturutako heriotzak aseguru-etxearen kidea den ehorztetxeak berak kudeatzen ditu, zendutakoaren senideek ehorztetxe ezberdin batek buru ditzala eskatzen duten kasuetan izan ezik.

#### **4.3.4.1.2. Hileta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresetan ematen diren akordioak edo partaidetzak**

Aseguru-etxeek hileta-zerbitzuen merkatuan parte hartzen dute bide ezberdin bi erabiliz. Hauek, praktikan, hileta-zerbitzuen sektorean aseguru-etxeek parte hartzean ematen dituzten pauso biekkin parekatzen dira.

<sup>65</sup> Banakako eskatzaileak egin zezakeen banakako negoziazioaren kaltetan.

<sup>66</sup> Lehia dela eta, arazoak sortu izan dira hileta-zerbitzuekin lotura duten merkatuetan. Ikus CNC Ebazpenak: 568/03, Floristerias Tanatorios Castellón, 575/03, Interflora Tanatorios Tortosa, 654/05 Interflora/Tanatorios Castellón 2, 616/06, Tanatorios Castellón, 619/06 Tanatorios Valencia, 622/06 Interflora/Tanatorios Sevilla 3.

<sup>67</sup> Gironako Probintzia Entzutegiaren 60/2005 epaia: *...kasu honetan ematen den moduko egitezko monopolio egoera batean, heriotza-aseguruak saltzen dituzten aseguru-etxeak dira menpekotasun ekonomikoaren ondoriozko egoera batean daudenak, eta horrek eragin dezake hileta-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa monopolistak aseguru-etxe horietaz abusatzea.*

<sup>68</sup> Iturria: Aseguru eta Pentsio-Fondoan Zuzendaritza Orokorra (DGSFP). Registro Publikoak. 2010. urtea.

<sup>69</sup> Iturria: ICEA Investigación Cooperativa entre Entidades Aseguradoras y Fondos de Pensiones. ICEA emandako informazioa oinarritat du aseguru-etxeek emandako informazio ez ofiziala. Aseguru-etxe guztiak ez dituzte finantza eta/edo fakturazioari buruzko informazioa ematen, adibidez, Previsora Bilbaína eta Preventiva aseguru-etxeek.

<sup>70</sup> Datu hau kontu handiz interpretatu behar da, izan ere, datuak iturri ezberdinetatik atera izan dira: Previsora Bilbaína eta Preventiva aseguru-etxeek Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak eskatuta emandako datuak daude alde batetik, ostera, gainontzeko datuak ICEAk kaleratu ditu.



Aipatutako bideetariko lehena, agente kontzeptutik abiatzen da. Aseguru-etxeak agentzia kontratu bat sinatzen du hileta-zerbitzu enpresa batekin edo hauetan partaidetza duen pertsona fisiko nahiz juridiko batekin. Era horretan aseguru-etxe horrek kontratatutako heriotza-aseguru, ia guztiak, agenteak berak kudeatzen ditu, hau da, aseguru-etxearekin kontratua sinatzen duen ehorztetxeak. Horrela, agente berak bere gain hartzen du aseguru-etxearen eta ehorztetxearen kudeaketa<sup>71</sup>.

Denboraren poderioz, kasu askotan, figura hau desagertu egin da, hain zuzen ere aseguru-etxeak merkaturatzea beregain hartu duelako edota agente eskusibo zein enpresetara atxikita dauden agenteei eskualdatu dielako. Horregatik, aseguru-etxearen eta ehorztetxearen artean zegoen hasierako harremana eraldatu egin da: ehorztetxeak aseguru-etxeari zerbitzuen prestazioa bermatzen dio eta, era berean, aseguru-etxeak ehorztetxeari zerbitzu horien eskaria bermatzen dio. Baina, lehentasunezko harreman hau puskatu daiteke aseguru-etxeak berorren baitan dauden ehorztetxeen bidez zerbitzu guztiak ematea erabakitzen badu. Ehorztetxeen fakturazioaren beherakada garrantzitsua izango litzateke eta, hori dela eta, presio neurri ezberdinak hartzea erabaki lezakete.

EAEEn agente moduan, besteak beste, hurrengoek dihardute: Funeraria Vitoria-Gasteiz (Preventiva), Funeraria Larraz (La Previsora Bilbaína), Funeraria Sarria (La Previsora Bilbaína), Funeraria Aranguren (La Previsora Bilbaína).

Euskofunerarias taldearen kasua berezia da: agente bezala, hurrenez hurren, Seguros Ocaso, Grupo Albia eta Preventiva aseguru-etxeekin harreman indibidualak dituzten hiru pertsona fisiko, aldi berean hileta-zerbitzuen sektorearekin lotura duten enpresa multzo baten jabe dira (Funeraria Vascongada, Tabisa, Tadosa, Harrespil, Landarri, Zentolen, etab). Aseguru talde ezberdinekin dituen alde anitzeko harremanak lehentasunezko tokia eman dio, adibidez, Donostialdea edo Bidasoa Beherea bezalako merkatuetan. Merkatu horietan aseguru zerbitzuen prestazio ia guztiak biltzen ditu -izan ere harremanak baititu eskualdean dauden aseguru-etxe garrantzitsuenekin.

Aseguru-etxeak hileta-zerbitzuen merkatuan izateko, bigarren bidea, integrazio bertikal zuzena da, hau da, ehorztetxeak eskuratzea edo eratzea, taldean parte hartzen duten enpresen partaidetza zuzenarekin edo zeharkako partaidetzarekin.

---

<sup>71</sup> Horrek Aseguru Merkatuen Ordenamenduaren Zuzendaritzaorde Orokorrak (Subdirección General de Ordenación del Mercado de Seguros) adierazitakoarekin bat egiten du, hain zuzen ere "3/2007 galde-sortari emandako erantzunen inguruko ondorioak, heriotza-aseguruetan aseguratuari emandako informazioaren inguruko zenbait alderdiei buruz" delakoan zera jasotzen du ...; *zenbait merkaturatze eredu, zeinetan batzutan agentearen eta ehorztetxearen figurek bat egiten dute [...]*

Aseguru-etxeek ehorztetxeetan partaidetza izatea eztabaidatua izan da<sup>72</sup> baina, Ospitaleen kudeaketaren kasua aztertzerakoan, DGSFPak<sup>73</sup> interpretatu du, aseguru kontratuen gaineko araudiak ez duela debekatzen aseguraturako zerbitzuak ematen dituenak bestelako erakunde baten kapital sozialean partaidetza izatea ezta aseguru-etxeek edozein erakunderen fondo propioetan partaidetza izatearen aktibitatea.

Heriotza-aseguruaren berezitasuna kontuan hartuta, erregulazio berezi bat eskatu izan da<sup>74</sup> hurrengo hutsuneak gainditu ahal izateko:

1. Aseguru-etxeen integrazio bertikalaren inguruan dagoen erregulazio urria. Heriotza-aseguruaren alorrean jarduten duten aseguru-etxeen integrazio bertikalak hileta-zerbitzuen baldintzen gaineko gehiegizko kontrola izatea ahalbidetzen du, batez ere baldintza ekonomikoei dagokienez. Horrek interes gatazka egoera dakar aseguru-etxe horientzat, aseguratuaren kaltetan, eta, gainera, heriotza-aseguruaren merkatuan sartzeko zein hileta-zerbitzuak emateko orduan oinarrizko elementuetariko bat kontrolatzen dute.
2. Aseguru-etxeentzat derrigorrezkoak diren probisio zein primak kalkulatzeko erabiltzen diren oinarri teknikoen erregulazio urria. Oinarri tekniko hauek hileta-zerbitzuak emateko baldintzen gaineko gehiegizko kontrola sustatzen dute, interes gatazka nabarmena sortuz aseguratuaren kaltetan.
3. Aseguru kontratuaren iraupena eta aseguratuaren eskubideen finkapenaren gaineko erregulazio urria. Primak erreskatatzeko dagoen ezintasuna, bai arauak direla zein praktikan, fideltasuna eragiten du aseguratuengan horiek *gatibu* utziz.
4. Aseguru-etxeek aseguratuari eman beharreko informazioari buruzko erregulazio urria. Aseguru-etxeei informatzeko betebeharrak zorrotzagoak ezarri behar zaizkie, erabiltzaileek aseguru modalitate hauekiko duten ezagutza maila handitu ahal izateko, izan ere gardentasun eta ezagutza ezak heriotza-aseguru esparruko aseguru-etxeei abantailak eskaintzen dizkie<sup>75</sup>.

Merkatuan nahiz gizartean sartze maila handia izan arren eta aseguratzeko formula anitzak erabili arren, horren arau-erregimenean nabariak dira aseguratuak kaltetu ditzaketen hutsuneak, aseguru-etxeek zerbitzuaren baldintza ekonomikoen gainean duten gehiegizko kontrola dela eta<sup>76</sup>.

<sup>72</sup> Francisco Marcosek bere "Análisis del entorno competitivo del sector funerario español y de los esfuerzos de liberalización" obran hurrengo azaltzen du ... *gaur egun LOSSPak eta ROSSPak ezartzen duten arauketaren harira, uste dugu aseguru-etxeek ez dituztela betetzen LOSSPe 4. eta 5. artikuluan ezarritako debekuak integrazio bertikala egitean eta horrela (zeharka) hileta-zerbitzuak emanez aseguratu gabeko hirugarrenei. Eta, hori ez ezik, hileta-zerbitzu horiek bere aseguratuari eman ahal izatea ROSSPen 25. artikuluan arautzen dena LOSSPen xedapenen aurkakoa da eta, beraz, heriotza-aseguruak eskeintzen dituzten aseguru-etxeek debekatuta dute...*

<sup>73</sup> Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Orokorra (Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones).

<sup>74</sup> Francisco Marcos. "Análisis del entorno competitivo del sector funerario español y de los esfuerzos de liberalización"

<sup>75</sup> Dena dela, Uztailaren 31ko 1298/2009 Errege Dekretuari esker, emandako informazioa hobea da.

<sup>76</sup> «Heriotza-aseguruaren merkatua: arauketaren gabeziak eta integrazio bertikala» txostena. Observatorio de Política de Competencia del Instituto de Empresaren (Francisco Marcos eta Albert Sánchez. 2006eko azaroak 10).



Heriotza aseguruaren merkatuan duten jarduerari begira, EAEn hurrengo aseguru-etxeak aipa daitezke<sup>77</sup>:

- Seguros Ocaso, Servisa ehorztetxearen jabea dena eta Bilbo Handian aritu dena.
- Grupo Albia, Seguros Santa Lucía-ren bitartez Funeraria Nuestra Señora de Begonia ehorztetxearekin lotura duena, Durangaldea eta Deba Beherea eskualdeetan aritu dena..
- Previsora Bilbaína, Funeuskadi taldeari (edo Azkaran taldea) atxikita. Zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza dauka, besteak beste, hurrengo ehorztetxeetan: Funeraria La Auxiliadora eta Funeraria Bilbaína, Bilbo Handian dihardu; Funeraria Mugica, Deba Beherean kokatutakoa; eta Funeraria Donostiarra, Donostian dagoena. Horrez gain, partaidetza gurutzatuak ditu ehorztetxe ezberdinetan eta ehorztetxearekin bat egiten duten agenteekin.

ICEAren arabera<sup>78</sup> EAEn Santa Lucía izango litzateke zerrenda burua eta, ondoren, Ocaso eta MAPFRE egongo lirateke (ICEAk ez dauka Previsora Bilbaína eta Preventiva aseguru-etxeei buruzko daturik).

Hileta-zerbitzuetako talde bi daude aseguru-etxe bakarrarekin akzio bidezko atxikipena edukitetik at: Funeraria Tanatorio Bizkaia, enpresa erabaki bat dela eta Grupo Furesa<sup>79</sup> edo Euskofuneraria, jadanik agente bezala aztertu izan dena.

Integrazio bertikalaren ondorioz, eskaera ehorztetxe gutxi batzuen eskutan bilduko litzateke, lehia abantaila (alegia, eskualde baten ondo ezarrita egotea edo ezinbesteko baliabideak izatea hileta-zerbitzuen kontratazioan) nabarmenik ez duten enpresa independenteak egoera zailean utziz.

EAEn jarduten duten aseguru-etxe garrantzitsuenek, aldi berean, ehorztetxe edo agente/ehorztetxe propioak izateak aseguru-etxe horiek hileta-zerbitzuen merkatuan eragiteko ahalmena edukitzea dakar. Horren ondorioz, ehorztetxe independenteen zerbitzuak beraien enpresek eskainitakoekin ordezkatzeko ahalbideratu lezake<sup>80</sup> eta modu horretan zerbitzuaren baldintzetan eragina izan dezakete, batez ere prezioarengan<sup>81</sup> <sup>82</sup>. Kontrara, ehorztetxearen eta

<sup>77</sup> Dena den, hau ez da zerrenda itxia; MAPFRE moduko bestelako konpainia batzuek ere jarduten dute merkatuan, aipatutakoak baino presentzia askoz txikiagoa duten arren.

<sup>78</sup> "Aseguruaren merkatua probintziatik probintzia. 2008. urteko estatistika". Borondatez enpresak eurak emandako informazioa, beraz informazioa ez du zertan osoa izan behar, esaterako, ez dago Previsora Bilbaína eta Preventiva buruzko daturik.

<sup>79</sup> FURE SA FUNERARIA VASCONGADA. Ez da nahastu behar Funerarias Reunidas, S.A.ren FURESA markarekin.

<sup>80</sup> Aseguruaren hurbilekoak zuzen ditzakete -informatzeko egintza gehiagorik burutu gabe- ehorztetxe jakin batetara, zenbait kasutan, aseguru enpresari talde berdinen jabetzapeko izaten dena, eta beste batzutan ordea, talde horren agentea heriotza gertatu den udalerrian edo eragin-esparruan.

<sup>81</sup> Heriotza-aseguruaren tipikotasun ezak zenbait zalantza eragiten ditu [...] praktikan aseguru-etxeak izatea zerbitzua "aseguratzeko" dutenak eta egoera horren egokitasuna, edo, kontrara, aseguru-hartzaileak eurak izatea, behin heriotza gertatu eta gero -eta horrenbestez kapitalaren sortzapena-, euren gustukoaren ehorztetxearekin kontratatzea erabakitzen dutenak, betiere gastatzeko prest dauden zenbatekoa kontuan hartuta, kostu gutxiagoko zerbitzu bat hartuz eta gainontzeko kapitala berriro sakelean sartuz .



aseguru-etxearen artean loturarik ez denean, aseguru-etxeak hileta-zerbitzuak kontratatzeak muga ditzake beharrezkoak ez diren edo alferrikakoak diren zerbitzuak.

Horrenbestez, aseguru-etxearen eta ehorztetxearen arteko integrazio bertikalak baldintza dezake hileta-zerbitzuen merkatuaren lehia dinamika<sup>83</sup>. Lehia ez da ehorztetxeen artean soilik, baizik eta, neurri batean, aseguru-etxeetara zabaltzen da, horiek ehorztetxearen aukeraketan eragiten baitute. Edonola ere, erregulazio eraldaketa baten beharra dago aseguru-etxeek ehorztetxeen kapital sozialean duten partaidetzaren inguruan eta, baita, pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileengan eragina duen ororekin lotutako erregulazioan -aukeratzeko askatasunaren egikaritze eraginkor batek lehia indartzea ekarriko lukeela, merkatuan gardentasuna areagotu egingo bailuke-.

#### 4.3.4.2. Hilotzen inguruko gainontzeko zerbitzuen eragina

Hileta-zerbitzuen merkatuak lotura estua du hilotz-merkatuaren berezko beste produktu eta zerbitzu batzuekin; esaterako, hilerriak, errelekuak, lore-dendak edo zerraldoak. Hori ez ezik, enpresa batzuen helburua hileta-zerbitzu guztiak ematea da<sup>84</sup>.

Udalerri guztiak behartuta daude hilerri zerbitzua ematera<sup>85</sup>, zuzenean, udal enpresen bidez edota administrazio-emakida bat duten kapital eta izaera pribatuko enpresen bidez. Euskofunerarias taldeak, adibidez, Harrespil Servicios Funerarios y Gestión de Cementerios, S.L. eta Landarri, S.L enpresen bitartez eskaintzen ditu zerbitzu horiek<sup>86</sup>.

Bestalde, azken urteetan titulartasun publiko nahiz pribatukoa izan daitekeen erreleku zerbitzuaren erabilera zabaldu da. Euskofunerarias, Bizkaia eta Funeuskadi taldeek eta Vitoria-Gasteizen kokaturiko hiru enpresek erreleku zerbitzuak eskaintzen dituzte.

---

C85/04 INTUR/Euro Stewart.

<sup>82</sup> Hileta-zerbitzuen baldintzek zaildu egiten dute zerbitzu global batean integratuta dagoen produktu edo zerbitzu bati dagokion prezio argi, objektibo eta homogeenoa bat ematea. Hileta-zerbitzuen prezioen egituraren gardentasun ezak erraztu lezake ehorztetxeek zein aseguru-etxeek prezioak igotzea kontsumitzailearen kaltetan. Francisco Marcos. "Análisis del entorno competitivo del sector funerario español y de los esfuerzos de liberalización".

<sup>83</sup> Europako Batzordeak integrazio bertikalak eta merkatu nagusiaren eta bigarren mailako merkatuaren arteko menpekotasun mailak sor dezaketean arazoen arduraren hartzeko aukera izan du. Guzti hori lehiari buruzko Europar Batasunaren arauketaren arabera, erreferentziarako merkatuaren definizioa ezartzen duen Komunikazioarekin lotuta. (97/C 372/03 Komunikazioa. DOCE C372 1997. urteko abenduak 9).

<sup>84</sup> Zentolen Berri zentro aitzindaria da garai berriek dakartzaten beharrezko erantzun ahal izateko zerbitzu moderno eta erabatekoa eskeintzerako orduan. *Gipuzkoan lehenengo hileta-zerbitzuetako Zentro Integrala gara. (Somos el primer Centro Integral de Servicios Funerarios de Guipúzcoa)*. Iturria: [www.zentolenberri.com](http://www.zentolenberri.com).

<sup>85</sup> 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena. 26.1.a) Artikuluak ezartzen du udalerriek hilerriaren zerbitzu publikoa bere kasa edo elkarturik betetzeko duten betebeharra.

202/2004 Dekretua. 40. artikulua– Hilerri-zerbitzua.

1.– Udal orok du hilerri-zerbitzua emateko obligazioa, hain justu ere bakoitzak bere aldetik edo elkarturik, eta betiere toki-jaurbideari buruzko legeekin bat etorriaz.  
2.– Izaera juridikoa eta titularitatea (publikoa edo pribatua) edozein direlarik ere, hilerriek erregelamendu honetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

<sup>86</sup> Harrespil Servicios Funerarios y Gestión de Cementerios, S.L. eta Landarri, S.L. Aduna, Aldaba, Alegia, Afoeta, Astigarraga, Bedaio, Errenteria, Hondarribia, Idiazabal, Irura, Leaburu, Legorreta, Oiartzun, Ordizia, Tolosa, Zarautz, Zerain eta Zumaiako hilerriak kudeatzen dituzte. Errelekuen artean hurrengoak dituzte Zentolen Berri, S.A., Crematorio Errekalde.



Erreleku zerbitzuak ematearen zabalkundea garrantzitsua da, are gehiago erreketen kopuruaren, batezbestekoa, modu progresiboan handitzen dagoen unean<sup>87</sup>. Izatez, 2007. urtean 44% suposatzen zuen; 2008.ean, 46% eta 2009.ean, 48%<sup>88</sup>. Igoera hau egozten zaie, besteak beste, gizartearen ohituren aldaketel<sup>89</sup>. Halaber, ehorztetxe pribatuek erreketak zerbitzua eskaintzeko interesa erakusten dute; izan ere, hilerriek baino inbertsio txikiagoak eskatzen baitituzte.

Bestalde, ehorztetxeek beraien beilatokien bitartez lore apaindutako zerbitzuak eskaintzen dituzte. Euskofunerarias da zerbitzu honen adibide garrantzitsu bat, lore-denda bat baitu aipatutako zerbitzuak eman ahal izateko<sup>90</sup>.

Ikus daitekeenez enpresa taldeek hilotz-zerbitzuekin loturiko merkatu ezberdinetan egoteko joera dute eta horrela, euren eragina hileta-zerbitzua ematea baino harago zabaltzen da, loturiko hainbat merkatu baldintzatzeko aukera izanez.

---

<sup>87</sup> Errausketa edo erreketak: beroaren bitartez hilotzak, hilotz-hondarrak edo gorpuzkiak hauts bihurtzea. 202/2004 Dekretua.

<sup>88</sup> Iturria: Eusko Jauriaritzako Osasun eta Kontsumo Saila.

<sup>89</sup> Errausketa ehorzketa baino 400 euro merkeago izan ohi da. Iturria: OCU. Compra Maestra 331. 2008.

<sup>90</sup> Buenetxea, S.L. Loredenda. *Probintziako ehorztetxe eta beilatoki ospetsuenekin lan egiten dugun loredenda gara* ([www.buenetxea.es](http://www.buenetxea.es))



# MERKATU ADIERAZGARRIA

## 5. MERKATU ADIERAZGARRIA

Merkatu adierazgarria zehaztu behar da lehiaren arauak aplikatzeko esparrua finkatu ahal izateko eta, ondoren, merkatuaren lehia bideragarriaren maila zein den jakiteko. Merkatu adierazgarria definitzeko alde hauek kontuan hartu behar dira: produktu eta zerbitzuak nahiz dimentsio geografikoa kontu hartu behar dira. Behin hura zehaztuta, merkatu adierazgarri ezberdinetan dagoen kontzentrazioa eta boterea aztertuko da.

### 5.1. Merkatu adierazgarria produktuaren ikuspuntutik

Produktu edo zerbitzuaren ikuspuntutik, hileta-zerbitzuen merkatuak<sup>91</sup> heriotzaren unetik ehorzketa edo erreketeta gertatu aurreko momentura arte garatu beharreko jarduerak biltzen ditu, erlijio izaerako ekintzak baztertuz. Beraz, hurrengo jarduera hauek osatzen dute:

1. Gorpuren sanitate-egokitzapena eta hila janzteia, tanatoestetika<sup>92</sup> eta tanatopraxia<sup>93</sup> barne.
2. Zerraldoak eta bestelako hileta-ontziak hornitzea: gorpuen garraioa, ehorzketa eta erreketeta dagokion hilkutxarekin egin behar da<sup>94</sup>. Hilkutxen eta gainontzeko hileta-ontzien (gorpuzkiak sartzeko kutxa eta poltsa, errauts-kutxatila) ezaugarriak erregelamendu bidez ezarri dira<sup>95</sup>.
3. Hil-beilaren ekitaldi soziala antolatzea, ia kasu guztietan beilatokiaren instalazioetara bideratu da<sup>96</sup>.
4. Lurperatze edo erreketeta unea iritsi bitartean gelak uztea<sup>97</sup> gordailu bezala.
5. Loreen eta koroaren hornikuntza, kontratatzen duenak horrela nahi izanez gero.
6. Gorpuen eta gorpuzkien garraioa. Hileta-garraioa<sup>98</sup> legez garraio berezi, pribatu eta osagarri moduan sailkatuta dago.

<sup>91</sup> Erreferentziako merkatuaren definizioari buruzko Oharra lehiarekin zerikusia duen europar arautegiarentzat (97/C 372/03) Egunkari ofiziala C372, 1997.eko abenduak 9 (7. atala). Europako Batzordeak, merkatu adierazgarriari buruz eginiko Oharreen ezartzen du, produktu baten merkatu adierazgarria osatzen dutela kontsumitzailearentzat trukatzeko edo ordeztzeko modukoak diren produktu edo zerbitzu guztiak, horien ezaugarriak, prezioa edo erabilera kontuan hartuta.

<sup>92</sup> Jarduera ezberdinak biltzen ditu gorpuren garbiketa kasu, kosmetika tekniken aplikazioa eta hilotza egokitzeko modelaketa gorpuren itxura hobetzeko helburua besterik ez duena.

<sup>93</sup> Usteltzearen fenomenoak atzeratu nahiz eragozteko tekniken aplikazioa, gorpua sanitate-bermeekin artatu eta erakusteko helburua duten aldebaterako kontserbaziorako jardueren bidez edota gantzuketaren bidez.

<sup>94</sup> Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamenduaren 13. artikulua.

<sup>95</sup> Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamenduaren 14. artikulua.

<sup>96</sup> Beilatokia: heriotza-lekutik erreketeta- edo ehorzketa-lekura eraman bitartean hilotza izateko prestaturik dagoen hileta-tegi edo -establezimendua, hilotzak erakutsi eta beilatze behar bezala atondua eta eratua. Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua.

<sup>97</sup> Hilotzen sanitate-alderdiei buruzko Erregelamenduaren 15. artikulua 1. *Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan baimendutako beilatokietan edo hildakoaren etxebizitzan beilatuko da hilotza. (...).*

<sup>98</sup> Hilotzen sanitate-alderdiei buruzko Erregelamenduaren 16, 17, 18, 19, 20, 21 eta 29.2.a) artikuluetan arautzen da, jarduera horiek egiteko beharrezkoak diren baimenak aurreikusten direlarik aipatutako artikuluetan, xede honetarako erabil daitezkeen zerraldoak, baimendutako garraiobideak eta horien ezaugarriak.




7. Beste batzuk: hileta inguruko informazioa (eskelak), Administrazioaren laguntza, lege aholkularitza eta laguntza psikologikoa. Legeak ezarritako betebeharez gain, eragile etiko, kultural eta erlijiosoak erabakigarriak dira hileta-zerbitzua egituratzeko orduan.

Ehorztetxea bitarteko antzeko bat bilakatu daiteke eta, horrela, hileta-logistika guztiaren koordinatzaile den heinean zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzten hornitzaileak kontratatzen ditu, bezeroari informazio bilaketa eta operadore anitzekin harremanetan jartzeko betebeharrak dakarren lana arinduz.

Merkatuaren definizio honetan ez dira jaso hilerri edo erreleku zerbitzuak, lotuta dauden merkatuak izan arren, zerbitzu independentetzat jotzeko autonomi kontzeptual eta berezitasun nahikoa dutelako. Hiru merkatu hauek batera kontuan hartzen baditugu -hileta-zerbitzuak, hilerri zerbitzuak<sup>99</sup> eta erreleku zerbitzuak<sup>100</sup>-, merkatu zabalago batean gaude, hain zuzen ere hilotz-zerbitzu guztiak osatzen duten merkatuan<sup>101</sup>.

### 5.1. Grafikoa. Hilotz-zerbitzuen merkatua



Iturria: Norberak egina

<sup>99</sup> Hilerri zerbitzuen merkatuak ehorzketarekin loturiko zerbitzuen prestazioa barneratzen du (TDCren Ebazpena, 2008ko irailak 17, Txostena C-0097/08, 3i/MEMORA). Halaber, hilobi eta nitxoan salmenta eta errentamendu jarduerak eta hilotz-hondarren gutxitzeak hartzen ditu. Bere arauketa eta kudeaketa kontuan hartuz gero, berezko merkatu bat osatzen du, TDCak behin eta berriz adierazi duen moduan (TDCren Ebazpena, 1999ko maiatzak 25, Txostena 424/98, Funerarias Alcalá).

<sup>100</sup> Errelekua: hilotzak, hilotz-hondarrak eta gorpuzkiak erretzeko atondutako hileta-estabzimendua. Euskal Autonomi Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua.

<sup>101</sup> Ikus CNC: "Konponbideak... zit., orr. 182-183 eta Espainiaren kompetentzia: balantzea eta proposamen berriak", zit.: *Legeak erabilitako "hilotza-zerbitzuak orokorrean" adierak pertsona baten heriotzak eragindako jarduera guztiak biltzen ditu, heriotza bera gertatzen denetik ehorzketa edo erreketara jazo arte; beraz, beilatoki eta hilerrien ezarpena eta ustiapena barneratzen ditu.*

Inoiz mahaigaineratu da beilatoki-zerbitzuak, hileta-zerbitzuen artean ote dauden edo, kontrara, merkatu ezberdinak osatzen dituzten jarduera osagarri eta independente bezala hartu behar diren<sup>102</sup>. EAEn beilatokia erabiltzea oso zabaldua dago -2007. urtean heriotzen %87an erabili zen; 2008.ean %89an eta 2009. urtean %91an<sup>103</sup>-, hau da, ia ezinbesteko elementu bilakatu dela ehorztetxeak egindako eskaintzan eta, modu natural batean, barneratzen dela merkatu honetan.

EAEn ehorztetxe gehienek beilatoki instalazioak dituzte (Ikus 2. Eranskina). Hasiera batean, hileta-zerbitzuen merkatuan lehiatu ahal izateko azpiegitura hau izan beharko lukete merkatu honetan jardun nahi duten enpresek. Beilatoki instalazioak edukitzeko beharrizan honen ondorioz *essential facilities* edo ezinbesteko baliabideak jotzen dira edo ...*kontsumitzailearentzat oinarritzakoak diren instalazio edo azpiegiturak kontsumitzaileengana heldu ahal izateko eta lehiakideei beraien jarduerak egiteko eta ezelako bidezko baliabiderek ezin daitezkeenak ordezkatu*<sup>104</sup>.

Ondasun bat ezinbestekotzat jo ahal izateko hurrengotarikoren bat jazo behar da: ezinezkoa izatea ondasun horren bikoiztea edo hura ordezeko bidezko alternatibarik ez egotea, zio legal edo ekonomikoak direla eta. Horrenbestez, kontzeptu honetatik at dago gainontzeko baten ondasunak erabiltzea, soilik norberarentzako baliabideetan inbertitzea baino errazagoa eta merkeagoa delako. Hau da, kontuan hartu beharko da hileta-zerbitzuko enpresak beilatoki instalazioa edukitzeko dituen benetako aukerak, azken batean, kostua eskurazina ez izatea edo oztopo legalak zein eraikitzea saihesten duten eragile urbanistikoak ez egotea.

EAEn ez da beilatokiak eraikitzea tratatzen duen legerik<sup>105</sup> (hiri-antolamenduaren ondoriozkoak barne<sup>106</sup>) edo baldintza ekonomikorik eta, beraz, ez dituzte ezinbesteko baliabidetzat hartuak izateko baldintzak betetzen.

---

<sup>102</sup> Honen inguruan CNCak hileta-zerbitzuen merkatua, zenbait merkatu independentetan banatzeko aukera onartu du, esaterako, hilotzak garraiatzeko zerbitzuen prestazioa, beilatoki-zerbitzua, etab. Beilatoki-zerbitzuak merkatu independentetzat hartzeari dagokionez, CNCak adierazi du hori logikotzat jo daitekeela, baldin eta gertatzen den moduan, hileta-enpresa guztiek instalazio propioak (beilatokiak)ez badituzte (N- 05031 Txostena INTUR/FUNERARIAS ALTOARAGÓN 2005eko apirilak 11, 2001eko ekainak 20ko Ebazpena Txostena 495/00 Velatorios Madrid eta 2001eko martxoak 16ko Ebazpena Txostena 461/00 Cementerios La Paz).

<sup>103</sup> Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila.

<sup>104</sup> 1998.eko abuztuak 22ko Telekomunikabideei buruzko Europako Batzordearen Jakinarazpena.

<sup>105</sup> Jarduera gogaikarri, osasunaren kalterako, kaltegarri eta arriskutsuen Erregelamenduaren Izapideak jarraitu behar dituela zenbait kasutan ulertu izan da, jarduera hauetan aritzeko.

<sup>106</sup> Hiritarrentzat auzi sentikorra izanda, seinu ezberdineko ebazpen administrazio eta judizial anitz eman dira (adibidez: Altzako beilatokia Donostian).



Horrez gain, beilatoki instalaziorik ez duten hileta-zerbitzu enpresen multzo txikiak<sup>107</sup> erabil ditzake utzitako beilatokiak edo jo dezake udal beilatokietara<sup>108</sup>.

Dena den, beilatoki bakoitzaren ezinbesteko izaera zehazteko kokatuta dagoen merkatu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu beharko dira eta, ostean, aztertu beharko da erabilera ukatzetik eratorri daitezkeen lehiaren aurkako jarrerak<sup>109</sup>.

## 5.2. Merkatu adierazgarria geografiaren ikuspuntutik

Geografiari begira, merkatu adierazgarriak zera hartzen du: eragileek produktu hornikuntza eta erreferentziazko zerbitzu emate jarduerak garatzen dituzten eremua. Eremu horretan lehiaren baldintzek behar besteko homogeneotasuna dute eta gertu dauden beste eremu geografikoetatik bereiz daiteke, batez ere, bertan jazotako lehiaren baldintzak zertxobait ezberdinak baitira eremu horietako baldintzekin konparatuz gero<sup>110 111</sup>.

Hileta-zerbitzuen merkatuaren muga geografikoak ezartzerakoan kontuan izan behar da prestazioen izaerak berak eskatzen duela definizio murriztailea erabiltzea, ikusita joan-etorriek edo berandutzeek sortuko lituzketen edozein motatako kostuak, hornitzaileen ordezkapen posibleak zailduko ziezazkieketenak kontsumitzaileei.

Geografikoki hileta-zerbitzuen merkatua toki esparruko merkatutzat jo ohi da<sup>112</sup>. 2005. urterarte indarrean zegoen legeriak eragin zuzena izan zuen esparrua finkatzeratzekoan, zeinetan udal baimenek hileta-zerbitzuen prestazioaren eremua baldintzatzen zuten. Produktibitatea bultzatzeko azaroak 18ko 24/2005 Legearen ondorioz<sup>113</sup> udal baimenak bide ematen du Espainiako lurralde osoan hilotzen garraioa bezalako jarduera garrantzitsuenarekin betetzeko. Hala ere, hileta-zerbitzuen erabiltzaileek beraien udalerriko edo hurbileko udalerrri bateko enpresekin

<sup>107</sup> Funeraria Carranza, Funeraria Ezponda, Funeraria González, Funeraria Iparraguirre, Funeraria Uribesalgo, San Felipe Apostol, Funeraria San Miguel, Funeraria Umaran, Funeraria Vda. De José Luis de Ibarra. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila. EAEko beilatokiaren zerrenda: 2009.eko azaroa.

<sup>108</sup> Arrasate, Usurbil, Azkoitia.

<sup>109</sup> Honen harira, CNCak uste izan du beilatokiak, beti, ezin daitezkeela ezinbesteko baliabidetzat jo, merkatu berean zenbait existituz gero, euren arteko lehiak ezinbesteko izaeratik at uzten ditulako.

<sup>110</sup> Lehiaren inguruko europar arauketaren araberrako merkatu adierazgarriaren definizioari buruzko Jakinarazpenaren 8. lerroaldea (97/C 372/03). Egunkari Ofiziala C372 1997.eko abenduak 9.

<sup>111</sup> Geografiaren ikuspuntutik merkatuaren definizioa emateko kualitatezko osagai anitz kontuan hartu ohi dira antzemandako produktuen merkatuei aplikagarri zaizkienak, hots, eragileen jarduera esparrua, produktu eta zerbitzuen izaera eta ezaugarriak, legeriak ezarritako ezberdintasun eta oztopoak, ezberdintasun eta oztopo administratibo zein teknikoak, administrazio baimen edo emakiden esparrua, kontsumitzaileen lehentasunak, enpresek duten merkatu kuoten banaketa, prezioen ezberdintasunak, garraio kostuak, etab.

<sup>112</sup> CNCren aspaldiko izendapenari jarraituz.

<sup>113</sup> 22. artikulua ...Hileta-zerbitzuak ematen dituztenak aurreko lerroaldeak aipaturiko Udal baimenak lortzen dituztenak, bertan zehazturiko irizpideen arabera, euren eginkizunei lotutako jarduera bete ahal izango dute espainiako lurralde osoan, hau da hilotzen garraioa, kasu bakoitzean aplikagarri hilotzen sanitarekin lotutako polizia arauak beteta.



kontratatzea erabakitzen dute. Izatez, enpresen eta horien instalazioen kokapena lehiatu ahal izateko oinarrizko baldintzetariko bat da. Gertutasuna edo ailegaerraztasuna funtsezkoa da bezeroak erakarri ahal izateko<sup>114</sup>, bestelako merkatuetan funtsezkoak diren baldintzek duten garrantzi ezaren aurrean, adibidez, prezioa edo informazioa.

EAEren kasuan eta eremuari dagokionez eragileek, oro har, inguru erlatiboki mugatuetan aritzen dira, alegia eskualdeetan<sup>115</sup>: Kantauri Arabarra, Errioxa Arabarra, Bilbo Handia, Plentzia-Mungia, Durangaldea, Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa, Enkartzioak, Arratia-Nerbioi, Donostialdea, Goierri, Bidasoa Beherea, Deba Beherea, Deba Garaia, Tolosaldea eta Urola Kosta. 3. eranskinean eskualde ezberdinak osatzen dituzten udalerriak jasotzen dira.

Dena den, arau orokor honek badu salbuespen bat: Araban eskualdea baino esparru handiagoko merkatu geografiko bat dago, Vitoria-Gasteiz hiriburua eta inguruko eskualdeak edo hurrengo eskualdeek osatzen duten eremua: Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Arabako Ibarak eta Gorbeia Inguruak.

---

<sup>114</sup> Kokapena lehiatzeko oinarrizko baldintza bihurtzen da. Horrela, adibidez, Donostia-San Sebastián enpresa pribatuak udalerririk horretan *tradiziozko* den udal enpresaren inguruan kokatzeko joera izan dute.

<sup>115</sup> EUSTATen definizioaren arabera.



Aurretiaz aipatutakoa kontuan hartuta, analisi honetarako aintzat hartu beharreko merkatu adierazgarria eskualde eremuko hileta-zerbitzuen merkatua da, Vitoria-Gasteiz eta inguruko eskualdeak osatzen duten merkatua izan ezik.



KONTZENTRAZIOA

ETA MERKATUAREN BOTEREA

## 6. KONTZENTRAZIOA ETA MERKATUAREN BOTEREA

Merkatu kuotak eta kontzentrazio mailak honako informazioa ematen dituzte: merkatuaren egiturari buruzko zenbait ezaugarri eta enpresa desberdinen lehia garrantzia eta, beraz, merkatuaren lehia egoerari hurbiltzen gaituzte. Nolanahi ere, merkatu kuotak kontzentrazio indizeekin eta integrazio bertikala bezalako elementuekin batera interpretatu behar dira.

Hileta-zerbitzuen enpresen merkatu kuota<sup>116</sup> kalkulatzeko Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa erabili da, hain zuzen, operadore edo enpresa talde bakoitzak hartutako hilei buruzkoa. Kontzentrazio maila neurtzeko Herfindhal-Hirschman Indizea (HHI)<sup>117</sup> erabili da.

Halaber, heriotza-aseguruaren merkatuaren kontzentrazio maila eta merkatu kuotaren gaineko osagarritzko analisia gehitu da, merkatu honen eta hileta-zerbitzuen arteko lotura kontuan hartuta.

Analisi horretatik, besteak beste, ondorioztatu daiteke hainbat merkatu adierazgarritan, adibidez, Enkartazioak eskualdea, azpimerkatuak daudela, lurraldeen zabalera eta hileta-zerbitzu enpresa jakin batek udalerrri batekin eta inguruko herriein duen lotura direla eta. Edozelan ere, errealitate honek ez du hutsaltzen merkatu adierazgarrien mugaketa geografikoa. Azterketa zehatzagotan kontuan hartu beharreko elementu bat izango litzateke.

<sup>116</sup> Nahiz eta merkatu kuota zehatz batetatik ezin da ondorioztatu automatikoki enpresa batek merkatuan boterea duela, behin eta berriz jurisprudentziak adierazi duen bezala, merkatu kuota guztiz garaiaik -%50tik gorakoak- frogatu lezake berez egoera gailen edo nagusi bat dagoela. Hala eta guztiz ere, beste faktore hauek ere kontuan hartzen dira: beste lehiakide txikiago batzuek lehia presio nahiko sor lezakete, lehiakide kopurua, sendotasuna, gaitasuna murrizketa edo produktuak ordeztzeko gaitasun maila. Kontzentrazio horizontalak enpresen kontzentrazioa kontrolatzeko Kontseilu Europarraren (2004/31/03) Erregelamenduaren arabera aztertzeko Europar Barzordearen gidalerroa (2004/31/03).

<sup>117</sup> Europar Batzordeak Herfindhal-Hirschman Indizea (IHH) erabili ohi du. Indize honek merkatuan diharduten lehiakide kopurua eta merkatuan duten parte hartze erlatiboa kontuan hartzen ditu. IHH indize hau enpresa guztien merkatu kuota batuz kalkulatu da. Indizeak enpresa haundiagoei, proportzionalki, pisu handiagoa ematen die. IHH indizea 0tik (merkatu atomizatua) 10.000ra arte (monopolio sendoa) doa.

Kontzentrazio horizontalak enpresen kontzentrazioa kontrolatzeko Kontseilu Europarraren (2004/31/03) Erregelamenduaren arabera aztertzeko Europar Barzordearen gidalerroen (2004/31/03) arabera, gertagaitza da lehia horizontalaren inguruko arazoak antzematea, kontzentrazio baten ostean IHH indizea 1.000 baino txikiagoa denean. Oro har, kasu hauetan ez da beharrezkoa merkatu mota hauen azterketa zehatza egitea.

Kontzentrazio maila neurtzeko hurrengo mugak kontuan hartzen dira : IHHa 1.000 baino txikiagoa bada kontzentrazio maila baxua da; 1.000 eta 1.800 bitarteko IHHak kontzentrazio maila, ertaina; eta, azkenik, 1.800tik gorakoa, IHHak kontzentrazio maila garaia.



## 6.1. Merkatu adierazgarrietan kontzentrazioa eta boterea

### 6.1.1. Errioxa Arabarra

#### 6.1. koadroa. Errioxa Arabarra merkatuaren 2007, 2008, 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007ko Kuota	2008ko Kuota	2009ko Kuota
POMPAS FUNEBRES PASTRANA	%35 -%40	%35 -%40	%55 -%60
POMPAS FUNEBRES LAUZURICA, S.A.	%30 -%35	%10 -%15	%10 -%15
FUNERARIA TANATORIO SAN JOSE, S.L.	%10 -%15	%20 -%25	%10 -%15
FUNERARIA VITORIA-GASTEIZ, S.L.	%5 -%10	%10 -%15	%15 -%20
POMPAS FUNEBRES VIRGEN BLANCA	%5 -%10	%10 -%15	%5 -%10
GALARZA (EHORZTETXEA)	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5

Errioxa Arabarraren 2009ko HHI: 3.655

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.

### 6.1.2. Kantauri Arabarra

#### 6.2. koadroa. Kantauri Arabarra merkatuaren 2007, 2008, 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007ko Kuota	2008ko Kuota	2009ko Kuota
LARRAZ (EHORZTETXEA)**	%70 -%75	%75 -%80	%85 -%90
SERVISA (EHORZTETXEA)	%10 -%15	%5 -%10	%5 -%10
ARANGUREN (EHORZTETXEA)	%5 -%10	%0 -%5	%0 -%5
LA AUXILIADORA (EHORZTETXEA)*	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
GAINONTZEKOAK	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5

Kantauri Arabarraren 2009ko HHI: 7.911

\*FUNEUSKADI TALDEA

\*\* Previsora Bilbaínaren agentea eta Funeraria Bilbaínaren partaidetza gurutzatuarekin,

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.



### 6.1.3. Vitoria-Gasteiz eta inguruko eskualdeak

#### 6.3. koadroa. Vitoria-Gasteiz eta inguruko eskualdeak merkatuaren 2007, 2008, 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
FUNERARIA VITORIA-GASTEIZ, S.L.	%30 -%35	%35 -%40	%50 -%55
POMPAS FUNEBRES LAUZURICA, S.A. POMPAS FUNEBRES	%0 -%5	%35 -%40	%25 -%30
VIRGEN BLANCA	%15 -%20	%20 -%25	%20 -%25
GAINONTZEKOAK	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5

Vitoria-Gasteiz eta inguruko eskualdeak 2009ko HHI: 3.739

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.

### 6.1.4. Bilbo Handia

#### 6.4. koadroa. Bilbo Handia eskualde merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
LA AUXILIADORA (EHORZTETXEA) *	%25 -%30	%30 -%35	%30 -%35
SERVISA (EHORZTETXEA)	%20 -%25	%20 -%25	%15 -%20
BIZKAIA (EHORZTETXEA)	%10 -%15	%10 -%15	%10 -%15
FUNERARIA NTRA. SRA. DE BEGOÑA	%5 -%10	%5 -%10	%5 -%10
BILBAINA (EHORZTETXEA) *	%5 -%10	%5 -%10	%5 -%10
SARRIA (EHORZTETXEA)	%5 -%10	%5 -%10	%5 -%10
LARRAZ (EHORZTETXEA)	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
GALARZA (EHORZTETXEA)	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
ARANGUREN (EHORZTETXEA)	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
URIBE (EHORZTETXEA)	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
GAINONTZEKOAK	%5 -%10	%5 -%10	%5 -%10

Bilbo Handiaren 2009ko HHI: 2.370

\* FUNEUSKADI TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.



### 6.1.5. Plentzia-Mungia.

## 6.5. koadroa. Plentzia-Mungia eskualdea merkatuaren 2007, 2008, 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
SARRIA (EHORZTETXEA)**	%25-%30	%25-%30	%25-%30
LA AUXILIADORA (EHORZTETXEA) *	%15-%20	%25-%30	%25-%30
SERVISA (EHORZTETXEA)	%15-%20	%15-%20	%15-%20
BIZKAIA (EHORZTETXEA)	%10-%15	%10-%15	%10-%15
FUNERARIA NTRA. SRA. DE BEGOÑA	%0-%5	%0-%5	%0-%5
BILBAINA (EHORZTETXEA). *	%0-%5	%0-%5	%0-%5
LARRAZ (EHORZTETXEA) **	%0-%5	%0-%5	%0-%5
VDA. de JOSE LUIS DE IBARRA (EHORZTETXEA)	%0-%5	%0-%5	%0-%5
GAINONTZEKOAK	%5-%10	%5-%10	%5-%10

Plentzia-Mungia eskualdearen 2009ko HHI: 2.070

\* FUNEUSKADI TALDEA

\*\* Previsora Bilbainaren agentea eta Funeraria Bilbainaren partaidetza gurutzatuarekin,

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.

### 6.1.6. Durangaldea

## 6.6. koadroa. Durangalde eskualdea merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
FUNERARIA NTRA. SRA. DE BEGOÑA	%25-%30	%30-%35	%35-%40
BASAGUREN (EHORZTETXEA)	%20-%25	%20-%25	%25-%30
ARRATE (EHORZTETXEA)	%15-%20	%10-%15	%15-%20
LARRAZ (EHORZTETXEA)	%10-%15	%5-%10	%5-%10
LA AUXILIADORA (EHORZTETXEA) *	%0-%5	%5-%10	%0-%5
BIZKAIA (EHORZTETXEA)	%5-%10	%0-%5	%0-%5
FUNERARIA MUGICA *	%0-%5	%0-%5	%0-%5
SERVISA (EHORZTETXEA)	%0-%5	%0-%5	%0-%5
GALARZA (EHORZTETXEA)	%0-%5	%0-%5	%0-%5
GAINONTZEKOAK	%0-%5	%0-%5	%0-%5

Durangaldea 2009ko HHI: 2.449

\* FUNEUSKADI TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.



### 6.1.7. Gernika-Bermeo

#### 6.7. koadroa. Gernika-Bermeo eskualde merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
URIBE (EHORZTETXEA)	%40 -%45	%40 -%45	%45 -%50
IZARO (EHORZTETXEA)	%20 -%25	%20 -%25	%30 -%35
ZULUETA (EHORZTETXEA ETA BEILATOKIA)	%20 -%25	%20 -%25	%10 -%15
LA AUXILIADORA (EHORZTETXEA)*	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
SERVISA (EHORZTETXEA)	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
FUNERARIA NTRA. SRA. DE BEGOÑA	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
ARRATE (EHORZTETXEA)	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
GAINONTZEKOAK	%5 -%10	%5 -%10	%5 -%10

Gernika-Bermeo eskualdearen 2009ko HHI: 3.131

\* FUNEUSKADI TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.

### 6.1.8. Markina-Ondarroa

#### 6.8. koadroa. Markina-Ondarroa eskualde merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
LEA-ARTIBAI (EHORZTETXEA)	%50 -%55	%50 -%55	%45 -%50
LEKEITIARRA (EHORZTETXEA)	%30 -%35	%30 -%35	%35 -%40
ARRATE (EHORZTETXEA)	%0 -%5	%0 -%5	%5 -%10
FUNERARIA NTRA. SRA. DE BEGOÑA	%0 -%5	%0 -%5	%5 -%10
LA AUXILIADORA (EHORZTETXEA)*	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
URIBE (EHORZTETXEA)	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
FUNERARIA MUGICA *	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
GAINONTZEKOAK	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5

Markina-Ondarroa eskualdearen 2009ko HHI: 3.577

\* FUNEUSKADI TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.



## 6.1.9. Enkartazioak

### 6.9. koadroa. Enkartazio eskualdea merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
ARANGUREN (EHORZTETXEA)	%55 -%60	%50 -%55	%55 -%60
LA AUXILIADORA (EHORZTETXEA) *	%10 -%15	%15 -%20	%10 -%15
CARRANZA (EHORZTETXEA)	%5 -%10	%10 -%15	%10 -%15
UMARAN (EHORZTETXEA)	%5 -%10	%5 -%10	%5 -%10
SERVISA (EHORZTETXEA)	%5 -%10	%0 -%5	%5 -%10
BIZKAIA (EHORZTETXEA)	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
GAINONTZEKOAK	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5

Enkartazioen 2009ko HHI: 3.850

\* FUNEUSKADI TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.

## 6.1.10. Arratia-Nerbioi

### 6.10. koadroa. Arratia-Nerbioi eskualde merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
LARRAZ (EHORZTETXEA)	%35 - 40%	4%0 -4%5	%30 -%35
GALARZA (EHORZTETXEA)	%25 -%30	%20 -%25	%30 -%35
SERVISA (EHORZTETXEA)	%15 -%20	%10 -%15	%10 -%15
FUNERARIA NTRA. SRA. DE BEGOÑA	%5 -%10	%5 %10	%5 -%10
LA AUXILIADORA (EHORZTETXEA) *	%0 -%5	%5 -%10	%5 -%10
BIZKAIA (EHORZTETXEA)	%0 -%5	%5 -%10	%0 -%5
BILBAINA (EHORZTETXEA). *	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5
GAINONTZEKOAK	%0 -%5	%0 -%5	%0 -%5

Arratia-Nerbioi eskualdearen 2009ko HHI: 2.549

\* FUNEUSKADI TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.



### 6.1.11. Donostialdea

#### 6.11. koadroa. Donostialdea eskualde merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
FUNERARIA VASCONGADA (TANATORIO DONOSTIALDEA) *	% 25 - % 30	% 20 - % 25	%20 - %25
FUNERARIA VASCONGADA *	% 20 - % 25	% 20 - % 25	%20 - %25
FUNERARIA MUNICIPAL POLLOE	%15 - % 20	% 20 - % 25	%20-%25
FUNERARIA TANATORIO ORBEGOZO	% 5 - % 10	% 5 - % 10	%5 - %10
DONOSTIARRA **	% 5 - % 10	% 0 - % 5	%5 - %10
SERVICIOS FUNERARIOS TABISA *	% 0 - % 5	% 0 - % 5	%0-%5
ZARAUTZ HILETA ZERBITZUAK - TANATORIO ZARAUTZ*	% 0 - % 5	% 0 - % 5	%0 - %5
FUNERARIA NTRA. SRA. DE BEGOÑA	% 0 - % 5	% 0 - % 5	%0 - %5
FUNERARIA MUGICA **	% 0 - % 5	% 0 - % 5	%0 - %5
FUNERARIA OYARBIDE	% 0 - % 5	% 0 - % 5	%0 - %5
FUNERARIA EZPONDA	% 0 - % 5	% 0 - % 5	%0 - %5
FUNERARIA CARMONA EHORZKETA	% 0 - % 5	% 0 - % 5	%0 - %5
OARSO HILETA ZERBITZUAK	% 0 - % 5	% 0 - % 5	%0 - %5
FUNERARIA ETXEBERRIA	% 0 - % 5	% 0 - % 5	%0 - %5
GAINONTZEKOAK	% 0 - % 5	% 0 - % 5	%0 - %5

Donostialdea eskualdearen 2009ko HHI: 3.309

\* FURESA TALDEA

\*\* LA AUXILIADORA TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.

### 6.1.12. Goierri

#### 6.12. koadroa. Goierri eskualde merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
FUNERARIA OYARBIDE	% 45 - % 50	% 50 - % 55	% 50 - % 55
FUNERARIA SANTA ISABEL	% 30 - % 35	% 25 - % 30	% 20 - % 25
FUNERARIA URIBESALGO	% 10 - % 15	% 5 - % 10	% 10 - % 15
FUNERARIA CARMONA EHORZKETA	% 0 - % 5	% 5 - % 10	%5 - % 10
GAINONTZEKOAK	% 5 - % 10	% 0 - % 5	% 0 - % 5

Goierri eskualdearen 2009ko HHI: 3.738

Iturria: Norberak egindakoa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa.



### 6.1.13. Bidasoa Beherea

#### 6.13. koadroa. Bidasoa Beherea eskualde merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
SERVICIOS FUNERARIOS TABISA *	% 85 - % 90	% 90 - % 95	% 85 - % 90
MALDAERREKA	% 5 - % 10	% 0 - % 5	% 5 - % 10
FUNERARIA VASCONGADA*	% 0 - % 5	% 0 - % 5	% 0 - % 5
DONOSTIARRA**	% 0 - % 5	% 0 - % 5	% 0 - % 5
GAINONTZEKOAK	% 0 - % 5	% 0 - % 5	% 0 - % 5

Bidasoa Beherea eskualdearen 2009ko HHI: 8.432

\* EUSKOFUNERARIAS TALDEA

\*\* FUNEUSKADI TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa kontuan hartuta.

### 6.1.14. Deba Beherea

#### 6.14. koadroa. Deba Beherea eskualde merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
FUNERARIA MUGICA *	% 45 - % 50	% 40 - %45	% 40 - % 45
FUNERARIA NTRA. SRA. DE BEGOÑA	% 20 - % 25	% 30 - %35	% 20 - % 25
FUNERARIA ETXEBERRIA	% 15 - % 20	% 20 - %25	% 20 - % 25
FUNERARIA IPARRAGIRRE	% 0 - % 5	% 0 - % 5	% 0 - % 5
LEA-ARTIBAI (EHORZTETXEA)	% 0 - % 5	% 0 - % 5	% 0 - % 5
GAINONTZEKOAK	% 0 - % 5	% 0 - % 5	% 0 - % 5

Deba Beherea eskualdearen 2009ko HHI: 3 211

\* FUNEUSKADI TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa kontuan hartuta.



### 6.1.15. Deba Garaia

#### 6.15. koadroa. Deba Garaia eskualde merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
FUNERARIA MOYUA	% 25 - % 30	% 20 - % 25	% 15 - % 20
FUNERARIA ARRASATE	% 20 - % 25	% 20 - % 25	% 20 - % 25
SAN FELIPE APOSTOL	% 15 - % 20	% 20 - % 25	% 20 - % 25
FUNERARIA OROILORE *	% 5 - % 10	% 10 - % 15	% 10 - % 15
FUNERARIA EUSKALDUNA	% 15 - % 20	% 10 - % 15	% 10 - % 15
FUNERARIA MUGICA **	% 0 - % 5	..% 0 - % 5	% 0 - % 5
ARRATE (EHORZTETXEA)	% 0 - % 5	% 0 - % 5	% 0 - % 5
GAINONTZEKOAK	% 5 - % 10	% 5 - % 10	% 0 - % 5

Deba Garaia eskualdearen 2009ko HHI: 1.892

\* EUSKOFUNERARIAS TALDEA  
\* FUNEUSKADI TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa kontuan hartuta.

### 6.1.16. Tolosaldea

#### 6.16. koadroa. Tolosaldea eskualde merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Ehorztetxea	2007	2008	2009
FUNERARIA VASCONGADA *	% 75 - % 80	% 85 - % 90	% 90 - % 95
FUNERARIA VASCONGADA (TANATORIO DONOSTIALDEA) *	% 10 - % 15	% 0 - % 5	% 0 - % 5
FUNERARIA OYARBIDE	% 0 - % 5	% 0 - % 5	% 0 - % 5
FUNERARIA TANATORIO ORBEGOZO*	% 0 - % 5	% 0 - % 5	% 0 - % 5
GAINONTZEKOAK	% 0 - % 5	% 0 - % 5	% 0 - % 5

Tolosaldea eskualdearen 2009ko HHI: 8.479

\*EUSKOFUNERARIA TALD.

Iturria: Norberak egindakoa Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa kontuan hartuta.



## 6.1.17. Urola Kosta

### 6.17. koadroa. Urola Kosta eskualde merkatuaren 2007, 2008 eta 2009ko merkatu kuotak. 2009ko HHI.

Hileta-enpresa	2007	2008	2009
FUNERARIA CARMONA EHZORZETA	%40-%45	%30-%35	%30-%35
ZARAUZ HILETA ZERBITZUAK - TANATORIO ZARAUZ*	%30-%35	%35-%40	%35-%40
FUNERARIA NTRA. SRA. DE BEGOÑA	%15-%20	%25-%30	%25-%30
FUNERARIA VASCONGADA*	%0-%5	%0-%5	%0-%5
FUNERARIA TANATORIO ORBEGOZO	%0-%5	%0-%5	%0-%5
FUNERARIA MUGICA **	%0-%5	%0-%5	%0-%5
GAINONTZEKOAK	%0-%5	%0-%5	%0-%5

Urola Kosta eskualdearen 2009ko HHI: 2.936

\* EUSKOFUNERARIA TALDEA

\*\*FUNEUSKADI TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak emandako informazioa kontuan hartuta.



## 6.2. Ondorioak: Merkatu adierazgarriak eta kontzentrazioa

### 6.18. koadroa. 2009ko kuotak merkatu adierazgarrietan. 2009ko HHI.

Merkatu adierazgarriak	N>2%	E1, %	E2, %	E3, %	E4, %	E5+, %	HHI
Errioxa Arabarra	5	[55-60]	[65-70]	[75-80]	[90-95]	[95-100]	3.655
Kantauri Arabarra	4	[85-90]	[90-95]	[95-100]	[95-100]	[95-100]	7.911
Vitoria-Gasteiz eta inguruko eskualdeak	3	[50-55]	[75-80]	[95-100]	[95-100]		3.739
Bilbo Handia	7	[30-35]	[50-55]	[60-65]	[75-80]	[80-100]	2.370
Plentzia-Mungia	5	[25-30]	[55-60]	[70-75]	[85-90]	[90-100]	2.070
Durangaldea	7	[35-40]	[50-55]	[65-70]	[75-80]	[90-100]	2.499
Gernika-Bermeo	4	[45-50]	[75-80]	[85-90]	[90-95]	[95-100]	3.131
Markina-Ondarroa	5	[45-50]	[80-85]	[85-90]	[90-95]	[90-95]	3.577
Enkartzioak	6	[55-60]	[70-75]	[80-85]	[85-90]	[90-100]	3.850
Arratia-Nerbioi	7	[30-35]	[65-70]	[75-80]	[80-85]	[85-100]	2.549
Donostialdea	8	[25-30]	[45-50]	[65-70]	[70-75]	[75-100]	3.309
Goierri	5	[50-55]	[75-80]	[85-90]	[95-100]	[95-100]	3.738
Bidasoa Beherea	2	[80-85]	[95-100]	[95-100]			8.432
Deba Beherea	4	[40-45]	[65-70]	[90-95]	[95-100]		3.211
Deba Garaia	5	[20-25]	[45-50]	[65-70]	[75-80]	[85-90]	1.892
Tolosaldea	3	[90-95]	[90-95]	[95-100]			8.479
Urola Kosta	3	[35-40]	[60-65]	[90-95]	[95-100]	[95-100]	2.975

N: Merkatu bakoitzean %2 baino kuota handiagoa duten enpresen kopurua.

E1: Enpresa 1en kuota.

E2: 2 enpresen kuota.

E3: 3 enpresen kuota.

E4: 4 enpresen kuota.

E5: 5 edo enpresa gehiagoren kuota.

Hiru merkatutan -Kantauri Arabarra, Bidasoa Beherea eta Tolosaldea- enpresa bakar batek %80a baino merkatu kuota handiagoa du<sup>118</sup>. Horrek lehia arriskuan jar lezake, lotura duten merkatuetan enpresa hauek duten egoera kontuan hartuz gero. Gainera, 4 merkatutan (Arabar Errioxa, Vitoria-Gasteiz eta inguruko eskualdeak, Enkartzioak eta Goierri) lehenengo enpresaren merkatu kuota %50 baino handiago da. Ostera, Deba Garaia eskualdean eskaintza ez dago hain kontzentratua, 5 enpresen artean banatzen baita eta merkatu kuota txikiena duenak %10eko kuota gainditzen du.

Bestalde, Donostialdea merkatuan, talde berdineko enpresek (5) %50etik gorako kuota lortu dute guztira (enpresa horietatik 2 merkatu liderrak dira). Argi dago analisia enpresa taldeen ikuspuntutik egiten bada merkatuaren kontzentrazioari buruzko ondorioak desberdinak direla.

<sup>118</sup> Behin eta berriz jurisprudentziak adierazi bezala, merkatu kuota guztiz garaiak -50%tik gorakoak-, berez, merkatu egoera gailen bat egiaztatzen du (T-221/95 Auzia, Endemol/Komisioa, [1999] II-1299 Helegitea, 134. atala; eta T-102/96 Auzia, Gencor/Komisioa [1999] II-753 Helegitea, 205. atala). Beste gauza bat da merkatu egoera gailen hori kontzentrazioa dela eta, sortzen den edo sendotzen den.



Merkatu guztietan HHI 1.800 baino handiagoa da. Horrek, hasiera batean, merkatu guztietan kontzentrazio maila handia dela adieraziko luke. Dena dela, ezin daiteke alde batera utzi merkatu kuotetan oinarritutako adierazleak funtsean ebaluazio edo abiapuntu tresnak direla eta, beraz, sektorearen benetako lehia maila osatzen duten baldintzak eta faktoreak kontuan hartzen dituen testuinguru zabalago batean balioetsi behar direla. Egoera horretan, lehiaren inguruko arriskuak ezartzeko, ezin daiteke HHI soilik hartu; merkatuak era sakonago batean aztertu behar dira.

Dena dela, merkatu kuota garai horiek egoera gailenaren abusuak ahalbideratu ditzakete. Beste merkatu batzuetan hurrengo jardueretan gauzatu dira abusu horiek<sup>119</sup>: beilatoki zerbitzuak kontratatzea ukatu, prezio eta merkatua banatzeko baldintzak jarri aseguru enpresekin lankidetzan hitzarmenak sinatu dituzten ehorztetxeei, jokaera diskriminatzaileak, beilatoki zerbitzuak ez ematea inolako arrazoi gabe, salaketa-egileenganako ospe-galtze jokaerak, lora zerbitzuei zenbateko batzuk ordaintzeko betebeharra ezarri lore apainketak zaindu eta erakusteagatik, benetako edo ahalezko lehia eragotzi, bidezko ez diren tarifak ezarri...

---

<sup>119</sup> CNCen hurrengo ebazpenak ikusi: 495/00, Madrilgo Beilatokiak, 461/00, La Paz Hilerria, 613/06, La Gomera Hileta-zerbitzuak, 380/99, Madrilgo Ehorztetxeak, 502/00, Madrilgo Ehorztetxeak 3, 524/02, Vigoko Ehorztetxeak, 568/03, Castellongo Loratoki eta Beilatokiak, 575/03, Interflora/ Tortosako Beilatokiak, 654/05 Interflora/ Castellongo Beilatokiak 2, 616/06, Castellongo Beilatokiak, 619/06 Valentziako Beilatokiak, 622/06 Interflora/ Sevillako Beilatokiak 3, 650/08, Balear Irietako Ehorztetxeak, 424/98, Alcaláko Ehorztetxeak.



LOTURA DUTEN MERKATUAK  
HERIOTZA-ASEGURUA

KONTZENTRAZIOA  
ETA MERKATUAREN BOTEREA

## 7. LOTURA DUTEN MERKATUAK: HERIOTZA-ASEGURUA

### KONTZENTRAZIOA ETA MERKATUAREN BOTEREA

Heriotza-aseguruaren merkatuan<sup>120</sup>, aseguru-etxeek hileta-zerbitzuen baldintzen gaineko kontrol larregi har dezakete, bereziki baldintza ekonomikoetan. Integrazio bertikaleko kasuetan, autokontratazioak arazoak sor ditzake eta hileta-zerbitzuen prezioak eragin, prezio horiek gero heriotza-aseguru polizek jasanari baitezakete. Horrek, Lehia Zuzenbidearen ikuspuntutik, arriskutsu jotzen da, zerbitzuen eskaera bideratzen baita eta beraien ehorztetxeei zerbitzu emateko orduan lehentasuna ematen zaielako. Beraz, aurretiaz esan bezala, aseguru hauen erregulazioan gardentasun gehiago izatea beharrezkoa da.

Santa Lucía eta Ocaso aseguru-etxeek Servisa eta Albia Enpresa Taldea (Nuestra Sra. de Begoña) ehorztetxeen jabe dira, hurrenez hurren. Halaber, Previsora Bilbaína hurrengo ehorztetxeen jabea da: Funeraria La Auxiliadora, Funeraria Bilbaína, Funeraria Múgica eta Funeraria Donostiarra; eta partaidetza dauka Funeraria Sarria eta Funeraria Larraz ehorztetxeetan, baita aseguru agente bezala aritzen diren ehorztetxe batzuetan ere<sup>121</sup>.

Jarraian EAEko hurrengo merkatua adierazgarriak aztertzen dira: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, lurralde historikoa baita heriotza-aseguruaren merkatu honen dimentsio geografikoa. Analisi hau, dena dela, hurrerapen bat baino ez da, merkatu kuota datuak jatorri ezberdinetatik baitatoz.

---

<sup>120</sup> Aseguru enpresen integrazio bertikala dela eta, polizak hileta-zerbitzuen enpresen bitartez merkaturatzen baitira, edo eskaitzaren kontzentrazioa dela eta.

<sup>121</sup> Aranguren ehorztetxea.



## 7.1. Araba

Arabako merkatuan azpimarragarria da Santa Lucíaren egoera, merkatu kuotaren bi heren baino gehiago bereak baitira. Lau aseguru-etxeren artean merkatuaren %85 baino gehiago daukate.

Santa Lucía, Albia taldearen bitartez, presente da Funeraria Vitoria-Gasteiz, S.L.en. Ehorztetxe hau hiletazerbizuen eskaintzan liderra da Vitoria-Gasteiz eta inguruko eskualdeak osatzen duten merkatuan.

### 7.1. koadroa. Heriotza-aseguruaren merkatua Araban 2008an

Aseguru-etxea	Merkatu kuota
Santa Lucía	%60-%65
Preventiva	%10-%15
Ocaso	%10-%15
Previsora Bilbaina	%5-%10
Mapfre	%5-%10
Eterna Aseguradora*	%0-%5
Helvetia	%0-%5
Beste batzuk	%0-%5
GUZTIRA	%100

\*OCASO TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa ICEAk argitaratutako negozio bolumenari buruzko datuak eta Previsora Bilbainak eta Preventiva aseguru-etxeek emandako informazioa oinarritzat hartuta.

Heriotza-aseguruaren merkatuaren %60 eta %65a bitartean enpresa baten esku dago eta enpresa horrek badu bideratzea bere aseguratuaren eskariak lotura duten ehorztetxetara. Hau da, merkatuaren %30<sup>122</sup>, gutxi gorabehera, baldintzatuta dago aseguru-etxeak hiletazerbizuen emalea aukeratzetik daukalako.

<sup>122</sup> %43 (heriotza-asegurua duen biztanleriaren %) \* enpresaren merkatu kuota.



## 7.2. Bizkaia

Bizkaian 4 aseguru-etxek heriotza-aseguruaren merkatuaren negozio bolumenaren %90 baino gehiago dute.

### 7.2. koadroa. Heriotza-aseguruaren merkatua Bizkaian 2008an

Aseguru-etxea	Merkatu kuota
Santa Lucía	%25 - %30
Ocaso*	%25 - %30
Previsora Bilbaína	%15 - %20
Mapfre	%15 - %20
Eterna Aseguradora*	%0 - %5
Preventiva	%0 - %5
Aseguradores Agrupados	%0 - %5
Beste batzuk	%0 - %5
GUZTIRA	%100

\*OCASO TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa, ICEAk argitaratutako negozio bolumenari buruzko datuak eta Previsora Bilbaínak eta Preventiva aseguru-etxeek emandako informazioa oinarritzat hartuta.

Heriotza-aseguruaren merkatuaren %70 ehorztetxeak dituzten enpresa batzuen esku dago eta, ondorioz, enpresa horiek bere aseguratuaren eskariak bere ehorztetxeetarantz edo, hauen faltan, lotura duten ehorztetxeetarantz bideratzen saiatuko dira. Hau da, merkatuaren %30<sup>123</sup>, gutxi gorabehera, baldintzatuta dago aseguru-etxeek hileta-zerbitzuaren emalea aukeratzetik daukatelako.

<sup>123</sup> %43 (heriotza-asegurua duen biztanleriaren %) \* enpresaren merkatu kuota.



### 7.3. Gipuzkoa

Gipuzkoan 4 aseguru etxek heriotza-aseguruaren merkatuaren ia %95 dute.

#### 7.3. koadroa. Heriotza-aseguruaren merkatua Gipuzkoan 2008an

Aseguru-etxea	Merkatu kuota
Santa Lucía	%40 -%45
Ocaso*	%30 - %35
Previsora Bilbaina	%5 -%10
Preventiva	%5 -%10
Mapfre	%0 – %5
Nortehispana	%0 – %5
Almudena	%0 – %5
Beste batzuk	%0 – %5
GUZTIRA	%100

\*OCASO TALDEA

Iturria: Norberak egindakoa, ICEAk argitaratutako negozio bolumenari buruzko datuak eta Previsora Bilbainak eta Preventiva aseguru-etxeek emandako informazioa oinarritzat hartuta.

Heriotza-aseguruaren merkatuaren %75 ehorztetxeak dituzten agenteen esku daude, hain zuzen, Euskofunerarias taldea osatzen duten eskuetan. Gainera, merkatuaren %5 eta %10a bitartean ehorztetxea duten aseguru etxeen esku daude. Guztira, merkatuaren %80 eta %85a bitartean hileta-zerbitzuak eskaini ditzake bere ehorztetxe edo lotura duen enpresen bitartez. Hau da, merkatuaren %35a<sup>124</sup>, gutxi gorabehera, baldintzatuta dago aseguru-etxeek hileta-zerbitzuaren emalea aukeratzetik daukatelako.

<sup>124</sup> %43 (heriotza-asegurua duen biztanleriaren %) \* enpresaren merkatu kuota.



# SARRERAKO BARRERAK

## 8. SARRERAKO BARRERAK

Hileta-zerbitzuen merkatuetan eragile berrien sarrera abailtzen edo ezintzen duten zailtasun<sup>125</sup> eta kostuen analisiak posible egiten du ezagutzea lehiakide berriak merkatuan sartzeko probabilitatea<sup>126</sup>. Hileta-zerbitzuen kasuan, sarrerako barrerak ondo aztertzea eskatzen du, merkatu batzuetan enpresa edo enpresa talde baten merkatu kuoten kontzentrazioa garaia baita.

Sarrerako barrerak era ezberdinetakoak izan daitezke: legearen arlokoak, tekniko-ekonomikoak eta dagoeneko merkatuan dauden enpresek duten posiziotik sortutakoak.

### 8.1. Legearen arlokoak

Europar Batzordeak honakoa ezarri du: *“legeriak ezarritako abantailek honako egoerak hartzen dituzte: araudiak ezarritako sarrerek merkatuan diharduten eragileen zenbatekoa mugatzen dutenak, adibidez, lizentziak gutxituz.”*<sup>127</sup>.

Autonomia Erkidego<sup>128</sup> eta udal araudiek<sup>129</sup> hileta-zerbitzuak emateko baldintza eta betebeharrak ezartzen dituzte.

Autonomia erkidego mailan, EAEko Hilotzen Sanitateari dagokion araudiak ez du ezartzen beharrezkoa baino harago doan betebeharrak berezirik, ezta ehorztetxeek beilatoki zerbitzuak eskaintzeko instalazioak izateko beharrezkoa ere. Halaber, jarduera hau garatu nahi duten enpresei ez zaie inbertsio larregi eskatzen.

Udal eremuari dagokionez, udal araudiaren bidez egoera murriztaileak sor daitezke, administrazio baimenak emateko orduan larregizko betebeharrak objektiboak eskatuz, horrela faktuzko debekuak ezarri. Adibidez, ehorztetxe edo beilatoki baliabideak ezarpenerako legeko interes orokorrarekin inolako zerikusirik ez duten betebeharrak xedatu dira. Hori 7/1996 Errege Dekretu Legeak ezarritakoarekin ez dator bat. Eta, horrela gertatu denean, Euskal

<sup>125</sup> Edo merkatuaren berariazko ezaugarriek, non merkatuan ari diren enpresei abantailak ematen dizkiete beraien ahalezko lehiakideen gain.

<sup>126</sup> Sarrera barrerak baxuak direnean litekeena da merkatuan diharduten enpresek presio gehiago sumatzea ahalezko lehiakide berrien sarreraren aurrean. Bestalde, sarrera barrerak garaia goak direnean lehiakide berrien sarrera dela eta presioa ez litzateke hain esanguratsua izango.

<sup>127</sup> Kontzentrazio horizontalak enpresen kontzentrazioa kontrolatzeko Kontseilu Europarraren (2004/31/03) Erregelamenduaren arabera aztertzeko gidalerroak (2004/31/03). 2004-2-5eko Europako Aldizkari Ofiziala C31.

<sup>128</sup> 202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomi Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamentdua onartzen duena.

<sup>129</sup> 202/2004 Dekretuaren 30. artikulua, hileta-enpresen ezartzei buruzkoak, hileta-zerbitzuak ematen dituen enpresak ezartzeko lizentziak emateko ahalmena toki-korporazioei dagokiela ezartzen du eta artikulua horrek jarduera aurrera eramateko beharrezkoak diren elementuak xedatzen ditu.



Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ebatzi eta udal akordioen efektuak eten ditu, *fumus bona iuris* eta *periculum in mora* printzipioak kontuan hartuz<sup>130</sup>.

Halaber, sarritan, hileta-enpresa, beilatoki edo lotura duten merkatuetako beste elementu batzuen (errelekuak udalerrri inguruetan ezartzea, esate baterako) ezarpenek auzokoen artean polemika handiak sortu dituzte eta, horrekin batera, udal erabaki eztabaidagarriak etorri dira. Horrelakoetan, eragileek auzitegietara jo izan dute eta arazo horiek 7/1996 Errege Dekretu Legearen xedeekin bat egiteaz ahalbideratu da.

Dena dela eta, oro har, EAEn ez dira onartu hileta-enpresen ezarpenerako beharrezko diren betebeharrak ezartzen dituzten udal mailako ordenantzak edo beste araudi batzuk. Dena dela, kontuan hartu beharko litzateke Udalek oztopatu edo zaildu lezaketela<sup>131</sup> enpresa pribatu berrien edo beilatokiaren sarrera merkatuan merkatu lehia murriz dezaketen udal araudi edo erabakiak ezarriz.

Beste Autonomia Erkidego batzuek ez bezala<sup>132</sup>, EAEn ez dago toki hileta-zerbitzuak erregulatzen duen araudirik, udalerritan beren-beregizko ordenantzarik ez dagoen kasuetarako eta ez dago erregulazio hori prestatzeko araudi marko bat ere. Horrek era askotako kasuistika sor dezake baina errealitateak erakusten du udal araudian heterogenotasunik ez dagoela eta, horri esker, jarduteko eskatzen diren betebeharrak ez direla guztiz ezberdinak udalen arabera. Nolanahi ere, udal araudi horren garapen faltak lehia errazten du.

Bestalde, aipatu behar da hileta-zerbitzuen inguruan, hilotzen sanitate-alderdiak kontrolatzeaz gain, administrazioek badituztela, bestelako ahalmenak, hots, antolamendu urbanistikoa edo gorputzak garraiatzeko lizentziak ematekoak.

Antolamendu urbanistikoari dagokionez, autonomia erkidego mailan ez dago hileta-zerbitzuen sektorean eragina duen arau xedapenik<sup>133</sup>. Udal eremuan, bestela, hileta-zerbitzuen instalazioak ezartzeak, oro har, ez dauka lurzoru industrialean eraikitzea baino beste mugarik.

---

<sup>130</sup> Bilboko Udalaren erabakia (erabaki honek hileta-zerbitzuak eskaintzeko kautelazko debekua ezartzen du zerbitzu hauek eskaintzeko administrazio baimena emateko betebeharrak erregulatzen dituen udal ordenantza onartu arte) eta Donostiako Udalaren erabakia (1996ko ekainaren 26ko GAO), 7/1996 Errege-dekretu legea prestatu zen momenteu berekoa, honako betebeharrak eskatzen ziren: zazpi hil-auto, beilatoki bat, hilbeilak egiteko sei gela, bostehun hilkutxa arrunt eta lekualdatzeak egiteko hilkutxa bereziak, ehun hondarren kutxa, etab. Iturria: Liberalización de la actividad funeraria. José Antonio García de Coca.

<sup>131</sup> Getxoko Udalak adibidez Lurralde Antolamendu Plan Orokorren aldaketa puntual bat sartzea proposatu du errelekuak –hileta-zerbitzuei loturiko merkatua eta hilotzen zerbitzuen merkatu zabalagoaren parte dena- ezartzea zailduz.

<sup>132</sup> Catalunyak udal hileta-zerbitzuak arautzen dituen legeri osagarria du: 209/1999 Dekretua, uztailaren 27koa.

<sup>133</sup> Lurralde Plan Sektorialak edo Partzialak –eta beraien garapenerako onartutako beste lurralde-antolamenduaren gaineko tresnak– baitira lurzoruaren mota, bakoitzari aplikagarri zaion araubidea eta bakoitzaren erabilera ezartzen dutenak.



EAEn ez da antzeman beste udal hirigintza tresnarik<sup>134</sup> zeinek, Estatuko beste zenbait udalerrik bezala, egoitza lurzoruarekiko tartea bezalako mugak ezartzen dituen.

## 8.2. Tekniko-ekonomikoak

Merkatuan diharduten enpresek abantailak izan ditzakete, adibidez, oinarrizko azpiegiturak, baliabide naturalak, I+G+B edo jabetza intelektual eta industrialaren gaineko eskubideak. Beraz, beste eragile batzuk merkatuan aritzea zaildu dezakete.

Hileta-zerbitzuen merkatuan, teknologia eta *know-how*-a ez dira sarrerako barrerak. Gainera, beharrezko diren baliabide materialak eta giza baliabideak lortzeko inbertsio handiak<sup>135</sup> ez dira behar eta, erabiltzen diren baliabide ezberdinak ezin dira ezinbestekotzat jo. Beilatokien kasuan, beraien enpresa politikaren tresna estrategikoa izan dezake, inbertsioak egin daitezke edo beste batzuenak erabil daitezke. Lagapena posible ez bada, ehorztetxeak inbertsioa egiteko orduan kontuan izan beharko du merkatuan bezeroak hartzeko ahalmena, salbu eta, legerian oinarritutako arrazoiak edo arrazoi ekonomikoak medio posible ez balitz izango, eta, ondorioz, baliabide ezinbestekotzat joko balitz. Kasu horretan erabiltzeko baldintzak ezarriko lirateke edo erabilera ukatzea lehiaren aurkako jokaera den aztertu beharko litzateke.

Halaber, zenbait eremu geografikotan gutxieneko tamaina behar da zerbitzua eskaintzeko eta, baldintza hori, sarrerako barrera bezala identifikatu daiteke. Catalunyako Lehiaren Defentsarako Zuzendaritza Orokorak<sup>136</sup> uste du oreka puntua emango litzatekeela merkatuan jarduten duten enpresen kopuruak eskari osoari erantzuna eman diezaiokenean, ehorztetxe bakoitzak eguneko zerbitzu bat eskainiko bailuke. Irizpide honen arabera, hurrengo koadroan eskualde ezberdinen egoera aztertzen da.

<sup>134</sup> Hala ere bere garapenean kontuan hartu behar dira Lurralde Plan Partzialak (hamabost eremu funtzional ezarri dira: Balmaseda-Zalla, Beasain-Zumarraga, Bilbo Metropolia, Durango, Donostia-San Sebastián, Eibar, Gernika-Markina, Igorre, Biasteri, Laudio, Arrasate-Bergara, Mungia, Tolosa, Araba Erdialdea, Zarautz-Azpeitia) eta Lurralde Plan Sektorialak (Jarduera ekonomiko eta merkataritza ekipamendurako lurzoria sortzea aurrikusten duten Lurralde Plan sektorialak). Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

<sup>135</sup> Lehiaren Defentsarako Auzitegiak prestatutiko INTUR/EURO STEWART txostenaren 6. atala: *hileta-zerbitzuen sektoreak ez du inbertsio garai bat eskatzen eta horrek merkatua gehienbat beste jarduera batzuk egiten dituzten (anbulantziak, aroztegiak...) familia enpresetan atomizatua dagoela adierazten du. Aurrekoa kontuan hartuz esan daiteke ez dagoela sarrerako barrera ekonomikorik. Hala ere, familia enpresa eredu honek biztanle gutxi duten udalerrietan iraun badezake ere, eredu hori sozio-kultur aldaketek mehatxuan jarri dezakete. [...] Sare bat izateak zerbitzu eskari gehiago hartzea bermatzen dezake.*

<sup>136</sup> Catalunyako hileta-zerbitzuen sektorearen lehia egoeraren gaineko ikerlana.



### 8.1. koadroa. Merkatu adierazgarriak, populazioa, heriotzak. 2007. urtea.

MERKATU ADIERAZGARRIA	2007 POPULAZIOA	2007 HERIOTZAK	HERIOTZAK/365 EGUN URTEAN
Vitoria-Gasteiz eta inguruko eskualdeak	260.929	2.021	5,54
Errioxa Arabarra	10.853	114	0,31
Kantauri Arabarra	33.677	279	0,76
Arratia-Nerbioi	22.504	228	0,62
Bilbo Handia	871.459	8.103	22,2
Durangaldea	94.448	785	2,15
Enkartzioak	30.610	332	0,91
Gernika-Bermeo	45.336	536	1,47
Markina-Ondarroa	26.274	289	0,79
Plentzia-Mungia	50.826	365	1
Bidasoa Beherea	76.642	581	1,59
Deba Beherea	54.359	555	1,52
Deba Garaia	61.634	559	1,53
Donostialdea	320.317	2.920	8
Goierrri	65.683	542	1,48
Tolosaldea	46.119	449	1,236
Urola Kosta	70.190	594	1,63

Iturria: Norberak egina EUSTATEk emandako informazioa oinarritzat hartuta

Koadro horretatik erreparatu daiteke, ratorik garaienak biztanleri handiena duten eremuetan agertzen direla. Eremu horietan enpresa taldeak edo hileta-enpresa garrantzitsuenak dihardute funtsean. Beste eskualde batzuetan (Errioxa Arabarra, Kantauri Arabarra, Arratia-Nerbioi, Enkartzioak, Markina-Ondarroa) ratioa 1tik beherakoa da eta hileta-zerbitzuak beste eskualde batzuetan kokaturiko edo ohiko ehorztetxeek eskaintzen dituzte.

Bestalde, integrazio bertikala edo, horren faltan, aseguru-etxeen eta ehorztetxeen edo erreleku eta hilerrien arteko harreman bereziek, hileta-zerbitzuen merkatuan sartzeko barrerak sor ditzakete. Izan ere, hileta-zerbitzuen merkatuan sartzeari neurri handi batean<sup>137</sup> heriotza-aseguruekin lotuta dago; aseguraturako hileten eskaria errazago berenganatuko du aseguru-etxeekin harreman berezirik badu, salbu hileta-enpresak lehia abantailak izan, adibidez eremu zehatz batean kokatuta egotea. Egoera hau nabariagoa da eskari handiagoa duten merkaturtan: Bilbo Handian lehenengo bi ehorztetxeak; Donostialdean lehenengo biak; eta Vitoria-Gasteiz eta inguruko eskualdetan lehenengoak %50 inguruko merkatu kuota daukate eta heriotza-aseguruak eskaintzen dituen aseguru-etxeei lotuta daude. Aseguru-etxeekin duten

<sup>137</sup> EAEko biztanleen %43ak heriotza-aseguru bat dauka. Iturria: UNESPA.



harreman horiei esker, eragile hauek beraien merkatu kuota babes dezakete, zerbitzuak heriotza-aseguruekin lotuz.

### **8.3. Dagoeneko merkatuan dauden enpresek duten posiziotik sortutakoak**

Sarrerako barreren sorrera dagoeneko merkatuan diharduten enpresen egoera sendoan egon daiteke<sup>138</sup>, lehiatzeko beharrezko den esperientzia eta ospea ez baitaude eragile berrien esku. Honako hauetariko faktoreak eragina izan daukate: kontsumitzaileek marka zehatz bati dioten fideltasuna, hornitzaileen eta bezeroen arteko harremanak, sustapen eta publizitate kanpainen garrantzia, eta izen onarekin zerikusia duten beste abantaila batzuk .

Hileta-zerbitzuak derrigorrez kontratatu behar dira, behar horri ezin zaio uko egin. Heriotza-asegurua izan edo ez, bezeroak tramitea ahal den azkarren eta era eraginkorrean pasatzea baino ez du nahi. Egoera horretan eragileen ospea funtsezko faktore bat da: fidagarritasuna eta izen ona kontratatzeke erabakia hartzeko orduan elementu garrantzitsuenak dira eta prezioa bigarren mailako baldintza dugu.

---

<sup>138</sup> Kontzentrazio horizontalak enpresen kontzentrazioa kontrolatzeko Kontseilu Europarraren (2004/31/03) Erregelamenduaren arabera aztertzeke gidalerroak (2004/31/03). 2004-2-5eko Europako Aldizkari Ofiziala C31.

ONDORIOAK

ETA PROPOSAMENAK

# 9. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

## 9.1. Ondorioak

1. EAEk eskumen osoak ditu Hilotzen Sanitate-alderdiei dagokienez, baina ez du araudi berezirik garatu hileta-zerbitzuen arloan. Udal administrazioak dagokion sanitate, hirigintza edo ingurumen administrazio baimena lortzera baldintzatzen du zerbitzua eman ahal izateko.
2. Hileta-zerbitzu eskaria inelastikoa da, bitarteko askokoa, eta oso bideratuta dago. Prezioa eta kalitatea bezalako irizpideak ez daukate beste merkatuetan duten eragina. Behinekoa eta premiazkoa izatez gain, derrigorrezkoa da. Informazio eza sumatzen da.
3. Informazio eza edo akastuna dago kontzeptu hauen inguruan: prezioa, zerbitzuen derrigortasuna edo ez, eta heriotza-aseguruaren kasuan, ehorztetxea aukeratzeko dagoen askatasuna. Informazioa horrelakoa izateak zerbitzuen eskatzailearen aukeratzeko askatasuna mugatzen du eta ehorztetxeek –edo/eta aseguru etxeek- egoera horretan etekina atera dezakete; are gehiago, kontratatze momentuan zerbitzuak eskatzailearen inguruabar berezia kontuan hartuta.
4. Osasun-zentroek eta zaharren egoitzen hildakoekiko jokaera era oso ezberdinetakoa da. Hala ere, euretako batzuek protokoloak ezarri dituzte hildakoaren etxekoei informazio nahiko eta neutroa eskaintzeko xedearekin. Edozelan ere, merkatua bana lezaketen txandak ezartzea eta hileta-enpresa batzuen alde egiteagatik langileek komisioak jasotzea bezalako jokaerak ekidin behar dira.
5. Erakunde publikoek hileta-zerbitzuak kontratatze orduan ez dute jardunbide homogeneorik eta, gainera, adostutako txandak ezartzen dira eta, ekintza horren bidez, merkatua bana liteke.
6. Merkatuen karakterizazioan, Lurralde Historikoen eremu egitura ezberdinek eragin erabakigarria izan dute.



7. 1996ko liberalizazioaz geroztik ohiko ehorztetxeak beraien betiko eremu geografikoetan mantentzen dira eta enpresa taldeek biztanle gehiago dituzten merkatuak aukeratu dituzte. Dena dela, dikotomia hau galtzen ari da, azalean ez bada funtsean: enpresa taldeek ohiko toki merkatuetan diharduten ehorztetxeak erosi, beraietan parte hartu edo enpresa berriak ezarri dituzte eta merkatu horietan lotura duten beste zerbitzu batzuk eskaintzen dira, adibidez errelekuak.
8. 1996ko liberalizazioaz geroztik, Servicios Funerarios de Donostia-San Sebastián, S.A. edo Polloe ehorztetxea da merkatu adierazgarrietan diharduen udal ehorztetxe bakarra eta, EAEtik kanpoko beste toki ehorztetxe batzuek ez bezala, ez da nagusi bere merkatu naturalean. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2010eko sententziak egoera hau alda dezake.
9. Hileta-zerbitzuen eta hilotz-zerbitzuen inguruan gertakari nagusienetarikoa da enpresa taldeek joera dutela zerbitzu ezberdinak integratzeko, hildakoaren gorpuaren prestaera prozesuan hasita hilerri zerbitzuak eta gorpuak erretzera arte eskaintzen dituztelarik.
10. Hileta-zerbitzuen sektorean merkatu adierazgarria eskualde mailako merkatua da, Vitoria-Gasteiz eta inguruko hainbat eskualdeaz gaineko merkatua izan ezik. Merkatu hori Arabako Lautada, Gorbeia Inguruak, Arabako Mendialdea eta Arabako Ibarrek eskualdeek osatzen dute.
11. Hileta-zerbitzuekin lotura estua duten merkatuak honako hauek dira: heriotza-aseguruen merkatua, errelekuen merkatua eta hilerrien merkatua. Horiez gain, hauek ere lotura dute: lorategiak, hileta-altzariak etab.
12. Hasiera batean, beilatokiak ez dira ezinbesteko baliabidea, EAEn legeriak ez baitu beilatokiak eraikitzeko mugarik ezartzen (ezta hirigintza legeriak ere) eta ekonomia aldetik ere ez baita mugarik sumatu.
13. Bilbo Handia, Donostialdea eta Vitoria-Gasteiz eta inguruko hainbat Arabako eskualdeetako hildako kopurua handia dela eta, EAEn eskaintzen diren hileta-zerbitzu gehienak eremu geografiko horietan eskaintzen dira. Eremu geografiko horietan, gutxienez, lau enpresa talde eta EAEko udal ehorztetxe bakarra ari dira lehian.



- 14.** Hiru merkatutan: Kantauri Arabarra, Bidasoa Beherea eta Tolosaldean ehorztetxe bakar batek du merkatuaren %80a baino gehiago, horrek lehiaren ikuspuntutik dakarren arriskuarekin. Arrisku hori areagotu egingo litzateke enpresa horiek lotura duten merkatuetan duten egoera kontuan hartuz gero.

Gainera, 4 merkatutan (Errioxa Arabarra, Vitoria-Gasteiz eta inguruko hainbat Arabako eskualdeak, Enkartzioak eta Goierri) lehenengo enpresak merkatuaren %50 kuota baino gehiago dauka. Deba Garaia eskualdean, aldiz, eskaintza ez dago hain kontzentratua, bost ehorztetxeen artean banatzen baita eta merkatu kuota txikiena duenak %10 baino gehiagoko merkatu kuota baitauka.

Gainera, Donostialdea bezalako merkatuetan, enpresa talde berdinekoak diren enpresek (5) guztira %50 baino handiagoa den merkatu kuota daukate (enpresa hauetatik 2 merkatu liderrak dira).

- 15.** Biztanleen %43ak heriotza-asegurua dauka. Horren ondorioz, eskariaren zati handi bat aseguru-etxeek dute, eta aseguraturako zerbitzua eman dezakete bere ehorztetxeei bidez edo loturiko enpresei bidez. Honek lehia desitxuratzea eragin ditzake merkatu ezberdinetan.

Hileta-zerbitzuen merkatuetan %30, gutxi gorabehera, baldintzatuta dago aseguru-etxeek zerbitzu hori nork emango duen hartutako erabakiagatik eta, ondorioz, ehorztetxe askoren bideragarritasuna aseguru-etxeek eskatutako zerbitzuen menpe dago. Azken finean, hileta-zerbitzuen merkatua, aseguruen lehia merkatua ere izan daiteke zati batean eta, horregatik, integrazio bertikala merkatu sarrerako barrera tekniko-ekonomikoa da.

EAEEn, beraien merkatu kuota kontuan hartuz gero, hurrengo aseguru-etxeek nabarmentzen dira: Santa Lucia (Albia enpresa taldea), Ocaso (Servisa), Previsora Bilbaína (Funeuskadi enpresa taldea) eta Preventiva.

- 16.** Enpresa taldeak merkatu ezberdinetan aritu dira. Funeuskadik, Bilbo Handia, Deba Beherea eta Donostialde eskualdetan dihardu. Euskofunerarias kasu berezi bat da: aspalditik sektorean aritu diren hiru pertsona fisiko hainbat aseguru-etxeekin, agente bezala, harreman indibidualak dituztenak, hilotz-zerbitzuen sektorearekin zerikusia duten enpresa multzo baten jabe dira. Aseguru-etxeekin duten alde anitzeko harreman honek, lehentasun egoeran kokatu ditu Donostialdea, Bidasoa Beherea, Tolosaldea eta Urola Kosta bezalako merkatuetan.

- 17.** Definitutako merkatu adierazgarrietan sartzeko ez dago legearen arloko sarrerako barrerarik.



## 9.2. Proposamenak

1. Hileta-enpresa eta heriotza-aseguruak eskaintzen dituzten enpresen arteko erabateko bereizkuntza edo erregulazio murriztailea, jardueren independentzia eta hileta-zerbitzuen kontratazioan neutraltasuna bermatzeko.
2. Araudiaren sorrera eta aplikazioa, osasun zentroek eta zaharren egoitzek ematen duten informazioa erregulatu duena eta ehorztetxeri instalazio hauetara sartzeko edo zentro hauetako langileek preskribatzaile bezala aritzea galarazten duena. Araudi horrek hildakoaren senideei liburuxka bat emateko betebeharra ezarri beharko luke gutxienez hurrengo informazioarekin: bere esku dituen zerbitzuak -derrigorrezkoak eta borondatezkoak- eta hauek eskaini ditzaketen ehorztetxeak. Zenbat eta informazioa zehatzagoa eman, bezeroarentzat hobe litzateke, merkatuan dauden alternatiba ezberdinak ezagutuko bailituzke eta merkatuan eragina izango bailuke guztiek jokalege berdina erabiliko bailukete.
3. Jarduera protokoloa hileta-zerbitzuak kontratatzen dituzten erakunde publikoentzat. Administrazio publikoek irizpideak ezarri beharko dituzte kontratatzen diren zerbitzuen banaketa zuzena izan dadin eta, horrela, merkatu banaketa eta enpresen baztertua suposa lezaketan txandak ezarpena ekidinez.
4. Bezeroari emandako informazioaren gaineko kontrola: prezioa, zerbitzuen derrigortasuna eta ehorztetxea aukeratzeko askatasuna heriotza-aseguruak duten kasuetan. Heriotza-aseguruak eskaintzen dituzten aseguru-etxeei jarraipena ere egin beharko litzateke.
5. Merkatuen jarraipena, ehorztetxe edo euren taldeek merkatu adierazgarrietan %50a baino gehiago dutenean.
6. Honelako jardueren jarraipena: lotura duten merkatuen pilotzea, kontzentrazio operazioak eta integrazio bertikalak. Ehorztetxeen eta aseguru-etxeen integrazio bertikalaren gaineko zaintza areagotzea beharrezkoa da. Integrazio fenomeno honek hileta-zerbitzuen merkatura sartzeko barrerak ekar ditzake, batez ere, aseguru-etxeen bitartez eskaintzen diren hileta-zerbitzuen portzentaia kontuan hartzen bada.



Gainera, prezioak behatu beharko dira ehorztetxeak aseguru-etxeek kontrolatzen dituztenean, prezio horiek heriotza-aseguruen primak baldintzatzen baitituzte. Horrela, hileta-zerbitzuen prezioen igoerak, justifikatua izan zein ez, eragina izango du heriotza-aseguruen primetan.



1 ERANSKINA

EAEN JARDUTEN DUTEN

EHORZTETXEEN

ZERRENDA

# EAEN JARDUTEN DUTEN EHORZTETXEEN ZERRENDA<sup>139</sup>

## EAEN KOKATUTAKO EHORZTETXEEN ZERRENDA

IZENA	SOZIETATEAREN IZENA	ENPRESA TALDEA
ARANGUREN (EHORZTETXEA)	AGUIRRE Y GARCIA DE ANDOIN, S.L.	
ARRATE (EHORZTETXEA)	FUNERARIA ARRATE, S.L.	
BASAGUREN (EHORZTETXEA)	AGENCIA FUNERARIA BASAGUREN, S.A.	
BASAURI (EHORZTETXEA BEILATOKIA).	FUNERARIA TANATORIO BASAURI, S.L.	
BILBAINA (EHORZTETXEA).	FUNERARIA BILBAINA, S.A.	FUNEUSKADI
BIZKAIA (EHORZTETXEAK)	FUNERARIA DE VIZCAYA, S.L.	
CANTABRICA (EHORZTETXEA)	FUNERARIA CANTABRICA, S.A.	
CARRANZA (EHORZTETXEA)	DANIEL GUNDIN QUIROGA	
FUNERARIA ARRASATE	MARIA CONCEPCIÓN BEDIA MADINABEITIA Y OTRA C.B.	
FUNERARIA CARMONA EHORZKETA	FUNERARIA CARMONA EHORZKETA, S.L.	
FUNERARIA ETXEBERRIA	FUNERARIA ETXEBERRIA, S.L.	
FUNERARIA EUSKALDUNA	HARRESPIL SERVICIOS FUNERARIOS Y GESTÓN DE CEMENTERIOS, S.L.-	EUSKOFUNERARIAS
FUNERARIA EZPONDA	DUK DECORACIÓN, S.L.	
FUNERARIA GONZÁLEZ	FUNERARIA GONZALEZ	
FUNERARIA IPARRAGIRRE	FUNERARIA IPARRAGIRRE	

<sup>139</sup> Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. 2009ko azaroan erregistratutako enpresak.



IZENA	SOZIETATEAREN IZENA	ENPRESA TALDEA
FUNERARIA MOYUA	FUNERARIA MOYUA	
FUNERARIA MUGICA	FUNERARIA MUGICA, S.L.	FUNEUSKADI
FUNERARIA MUNICIPAL POLLOE	SERVICIOS FUNERARIOS DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, S.A.	
FUNERARIA NTRA. SRA. DE BEGOÑA	NTRA.SRA. DE BEGOÑA, S.L.	SANTA LUCÍA
FUNERARIA OROILORE	OROILORE, S.L.	EUSKOFUNERARIAS
FUNERARIA OYARBIDE	FUNERARIA OYARBIDE, S.L.	
FUNERARIA SANTA ISABEL	FUNERARIA SANTA ISABEL, S.L.	
FUNERARIA TANATORIO ORBEGOZO	FUNERARIA ORBEGOZO, S.L.	
FUNERARIA URIBESALGO	ESTEBAN URIBESALGO ARAMENDIA	
FUNERARIA VASCONGADA	FUNERARIA VASCONGADA S.A. (FURE SA)	EUSKOFUNERARIAS
FUNERARIA VITORIA-GASTEIZ, S.L.	FUNERARIA VITORIA-GASTEIZ, S.L.	
GALARZA (EHORZTETXEA)	FUNERARIA GALARZA S.L.	
IZARO (EHORZTETXEA)	IZARO FUNERARIA-TANATORIO, S.L.	
LA AUXILIADORA (EHORZTETXEA)	FUNERARIA LA AUXILIADORA, S.L.	FUNEUSKADI
LARRAZ (EHORZTETXEA)	FUNERARIA LARRAZ, S.L.	
LEA-ARTIBAI (EHORZTETXEA)	MARIA CRUZ OLABARRIA UGARTEBURU	
LEKEITIARRA (EHORZTETXEA)	FUNERARIA LEKEITIARRA	
OARSO Hileta Zerbitzuak	OARSOALDEKO EHORZTETXEA, S.L.	



IZENA	SOZIETATEAREN IZENA	ENPRESA TALDEA
POMPAS FUNEBRES LAUZURICA, S.A.	POMPAS FUNEBRES LAUZURICA, S.A.	
POMPAS FUNEBRES VIRGEN BLANCA	POMPAS FUNEBRES VIRGEN BLANCA	
FUNERARIA VASCONGADA (TANATORIO DONOSTIALDEA)	TANATORIO DONOSTIALDEA-DONOSTIALDEKO BEILATOKIA, S.A.	EUSKOFUNERARIAS
SAN FELIPE APOSTOL	SOCIEDAD DE SOCORROS MUTUOS DEL GLORIOSO APOSTOL SAN FELIPE	
SAN MIGUEL (EHORZTETXEA).	ROSARIO OLGA DUEÑAS OYARZABAL	
SARRIA (EHORZTETXEA)	FUNERARIA SARRIA, S.A.	
SERVICIOS FUNERARIOS TABISA	TANATORIO DEL BIDASOA, S.A.	EUSKOFUNERARIAS
SERVISA (EHORZTETXEA)	SERVICIOS ESPECIALES, SA	OCASO
UMARAN (EHOZTETXEA)	MIREN EDURNE UMARAN AZCUNAGA	
URIBE (EHORZTETXEA)	JOSE MARIA URIBE ALBIZU	
VDA. de JOSE LUIS DE IBARRA (EHORZTETXEA)	MARIA DOLORES IBARRA GARAIZAR	
ZARAUZ HILETA ZERBITZUAK - TANATORIO ZARAUZ	SERVICIOS FUNERARIOS ZARAUZ, S.A.	EUSKOFUNERARIAS
ZULUETA (EHORZTETXEA BEILATOKIA)	SERVICIOS FUNERARIOS ZULUETA S.L.	



**EAEIK KANPO KOKATUTA DAUDEN ETA BERTAN JARDUTEN DUTEN EHORZTETXEEN ZERRENDA**

<b>IZENA</b>	<b>SOZIETATEAREN IZENA</b>	<b>ENPRESA TALDEA</b>
FUNERARIA TANATORIO SAN JOSE, S.L.	F. TANATORIO SAN JOSE, S.L.	
MALDAERREKA	GRUPO IRACHE	
MERINO (EHORZTETXEA) CANTABRIA	FUNERARIA MERINO, S.L.	
POMPAS FUNEBRES PASTRANA	POMPAS FUNEBRES PASTRANA	
SAN JOSE (EHORZTETXEA) CANTABRIA	FUNERARIA JOSE LUIS MARTINEZ GANZO	



2 ERANSKINA

EAEN JARDUTEN DUTEN

BEILATOKIEN ZERRENDA

# EAEN JARDUTEN DUTEN BEILATOKIEN ZERRENDA<sup>140</sup>

## EAEKO BEILATOKIEN ZERRENDA

BEILATOKIA	EHORZTETXEA	UDALERRIA
BILBAINA (T) BILBAO Avda Zumalakarregi	FUNERARIA BILBAINA, S.A.	BILBAO
SERVISA (T) BILBAO	SERVICIOS ESPECIALES, SA	BILBAO
NTRA. SRA. DE BEGOÑA (T) AMOREBIETA-ETXANO	NUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA, S.L.	AMOREBIETA-ETXANO
LARRAZ (T) AMOREBIETA.	FUNERARIA LARRAZ, S.L.	AMOREBIETA-ETXANO
BIZKAIA (T) AMOREBIETA-ETXANO.	FUNERARIA DE VIZCAYA, S.L.	AMOREBIETA-ETXANO
LARRAZ (T) ARRIGORRIAGA	FUNERARIA LARRAZ, S.L.	ARRIGORRIAGA
ARANGUREN (T) BALMASEDA.	AGUIRRE Y GARCIA DE ANDOIN, S.L.	BALMASEDA
BIZKAIA (TC) BARAKALDO.	FUNERARIA DE VIZCAYA S.L.	BARAKALDO
L.AUXILIADORA (T) BARAKALDO	FUNERARIA LA AUXILIADORA, S.A.	BARAKALDO
SERVISA (T) BASAURI	SERVICIOS ESPECIALES, SA	BASAURI
ZULUETA (T) BERMEO	SERVICIOS FUNERARIOS ZULUETA S.L.	BERMEO
IZARO (T) BERMEO	FUNERARIA-TANATORIO IZARO, S.L.	BERMEO
LEA-ARTIBAI (T) BERRIATUA	MARIA CRUZ OLABARRIA UGARTEBURU	BERRIATUA UGARTEBURU
ARRATE (T) BERRIZ	FUNERARIA ARRATE, S.L.	BERRIZ
BASAGUREN (T) DURANGO	AGENCIA FUNERARIA BASAGUREN, S.A.	DURANGO
SERVISA (TC) ERANDIO	SERVICIOS ESPECIALES, SA	ERANDIO
BILBAINA (TC) GALDAKAO	FUNERARIA BILBAINA, S.A.	GALDAKAO

<sup>140</sup> Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. 2009ko azaroan erregistratutako enpresak.



BEILATOKIA	EHORZTETXEA	UDALERRIA
URIBE (T) GERNIKA-LUMO	JOSE MARIA URIBE ALBIZU	GERNIKA-LUMO
IZARO (T) GERNIKA-LUMO	IZARO FUNERARIA-TANATORIO, S.L.	GERNIKA-LUMO
SARRIA (T) ALGORTA-GETXO	FUNERARIA SARRIA, S.A.	GETXO
GALARZA (T) GALDAKAO.	FUNERARIA GALARZA S.L.	GALDAKAO
NTRA. SRA. DE BEGOÑA (T) IURRETA	FUNERARIA NTRA. SRA. DE BEGOÑA, S.L.	IURRETA
CARRANZA (T) VALLE DE CARRANZA	DANIEL GUNDIN QUIROGA	KARRANTZA H/VALLE DE C.
LA AUXILIADORA (T)	FUNERARIA LA AUXILIADORA, S.L.	LEIOA
LEKEITIARRA (T) LEKEITIO	FUNERARIA LEKEITIARRA	LEKEITIO
SARRIA (T) MUNGIA	FUNERARIA SARRIA, S.A.	MUNGIA
L AUXILIADORA (TC)	FUNERARIA LA AUXILIADORA, S.L.	PORTUGALETE
ARANGUREN (T) ZALLA Ardebizkarra	AGUIRRE Y GARCIA DE ANDOIN, S.L.	ZALLA
ARANGUREN (T) ZALLA PI Aretxaga	AGUIRRE Y GARCIA DE ANDOIN, S.L.	ZALLA
POLLOE SERVICIOS FUNERARIOS	SERVICIOS FUNERARIOS DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, S.A.	DONOSTIA-SN SN
TANATORIO ALTZA	SERVICIOS FUNERARIOS DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, S.A.	DONOSTIA-SN SN
TANATORIO DONOSTIALDEA	TANATORIO DONOSTIALDEA-DONOSTIALDEKO BEILATOKIA, S.A.	DONOSTIA-SN SN
FUN. EASO- DONOSTIARRA	LA AUXILIADORA, S.L.	DONOSTIA-SN SN
FUNERARIA ARRASATE	FUNERARIA ARRASATE	ARRASATE/ MONDRAGON
AYTO DE ARRASATE	AYUNTAMIENTO DE ARRASATE	ARRASATE/ MONDRAGON
F CARMONA AYTO AZKOITIA	AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA	AZKOITIA
FUNERARIA CARMONA EHOZKETA	FUNERARIA CARMONA EHOZKETA	AZPEITIA
FUNERARIA OYARBIDE	FUNERARIA OYARBIDE, S.L.	BEASAIN
FUNERARIA OROILORE	OROILORE, S.L.	BERGARA

BEILATOKIA	EHORZTETXEA	UDALERRIA
FUNERARIA EUSKALDUNA	HARRESPIL, SERVC. FUNER. Y GESTIÓN DE CEMENTERIOS, S.L.- FUNERARIA EUSKALDUNA- E	BERGARA
FUNERARIA ETXEBERRIA	FUNERARIA ETXEBERRIA	ELGOIBAR
ZENTOLEN BERRI	AYUNTAMIENTO ERRETERIA	ERRETERIA
TAN HERNANI F VASCONGADA	TANATORIO HERNANI FUNERARIA VASCONGADA S.A.	HERNANI
F. ORBEGOZO	FUNERARIA ORBEGOZO, S.L.	HERNANI
SERV FUNERARIOS TABISA	TANATORIO DEL BIDASOA, S.A.	IRÚN
F. STA. ISABEL LEGAZPI	FUNERARIA SANTA ISABEL S.L.	LEGAZPI
TANATORIO MUTRIKU	NUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA, S.L.	MUTRIKU
TANATORIO MOYUA	FUNERARIA MOYUA	OÑATI
T.TOLOSALDEA BEILATOKIA	FURESA	TOLOSA
FUNERARIA MUGICA	FUNERARIA MUGICA, S.L.	ELGOIBAR
FUNERARIA VASCONGADA	FURESA, S.A.	TOLOSA
T. USURBIL	TANATORIO USURBIL	USURBIL
SERV FUNERARIOS ZARAUZ	SERVICIOS FUNERARIOS ZARAUZ, S.A.	ZARAUZ
FUNERARIA NTRA SRA DE BEGOÑA	FUNERARIA NTRA.SRA. DE BEGOÑA, S.L.	ZUMAIA
FUN. STA. ISABEL	SERVICIOS FUNERARIOS SANTA ISABEL, S.L.	ZUMARRAGA
POMPAS FUNEBRES LAUZURICA, S.A.	POMPAS FUNEBRES LAUZURICA, S.A.	VITORIA-GASTEIZ
TANATORIO ARMENTIA, S.L.	TANATORIO ARMENTIA, S.L.	VITORIA-GASTEIZ
TANATORIO VIRGEN BLANCA	CREVITOR COMERCIO Y SERVICIOS, S.A.	VITORIA-GASTEIZ
TANATORIO ALTO NERVION	TANATORIO ALTO NERVION, S.L.	LAUDIO/LLODIO

**EAETIK KANPO KOKATUTA DAUDEN BEILATOKIAK**

<b>BEILATOKIA</b>	<b>EHORZTETXEA</b>	<b>UDALERRIA</b>
TANATORIO PASTRANA	POMPAS FUNEBRES PASTRANA (INVERSIONES FUNERARIAS REUNIDAS, S.L.)	LOGROÑO
F.TANATORIO S. JOSE, S.L.	FUNERARIA TANATORIO SAN JOSE, S.L.	LOGROÑO



3 ERANSKINA

ESKUALDEAK

ETA BERTAKO UDALERRIAK

## ALAVA: ESKUALDEAK

ESKUALDEA	UDALERRIAK
Arabako Ibarak / Valles Alaveses	Añana Armiñón Berantevilla Kuartango Lantarón Ribera Alta Ribera Baja/Erribera Beitia Valdegovía Zambrana
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	Alegría-Dulantzi Arrazua-Ubarrundia Asparrena Barrundia Elburgo/Burgelu Iruña Oka/Iruña de Oca Iruraiz-Gauna Salvatierra/Agurain San Millán/Donemiliaga Vitoria-Gasteiz Zalduondo
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	Arraia-Maeztu Bernedo Campezo/Kanpezu Harana/Valle de Arana Lagrán Leza Peñacerrada-Urizaharra
Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	Baños de Ebro/Mañueta Elciego Elvillar/Bilar Kripan Labastida Laguardia Lanciego/Lantziego Lapuebla de Labarca Moreda de Alava Navaridas Oyón-Oion Samaniego Villabuena de Alava/Eskuernaga Yécora/Iekora
Gorbeia Inguruak / Estribac. del Gorbea	Aramaio Legutiano Urkabustaiz Zigoitia Zuia



## ALAVA: ESKUALDEAK

ESKUALDEA	UDALERRIAK
Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa	Amurrio Artziniega Ayala/Aiara Laudio/Llodio Okondo



## BIZKAIA: ESKUALDEAK

ESKUALDEA	UDALERRIAK
Arratia Nerbioi / Arratia-Nervión	Arakaldo Arantzazu Areatza Arrankudiaga Artea Dima Igorre Orozko Otxandio Ubide Ugao-Miraballes Urduña-Orduña Zeanuri Zeberio
Bilbo Handia / Gran Bilbao	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Alonsotegi Arrigorriaga Barakaldo Basauri Berango Bilbao Derio Erandio Etxebarri Galdakao Getxo Larrabetzu Leioa Lezama Loiu Muskiz Ortuella Portugalete Santurtzi Sestao Sondika Valle de Trápaga-Trapagaran Zamudio Zaratamo Zierbena



## BIZKAIA: ESKUALDEAK

ESKUALDEA	UDALERRIAK
Durangaldea / Duranguesado	Abadiño Amorebieta-Etxano Atxondo Bedia Berriz Durango Elorrio Ermua Garai Iurreta Izurtza Lemoa Mallabia Mañaria Zaldibar
Enkartzioak / Encartaciones	Artzentales Balmaseda Galdames Gordexola Güeñes Karrantza Harana/Valle de Carranza Lanestosa Sopuerta Trucios-Turtzioz Zalla
Gernika-Bermeo	Ajangiz Arratzu Bermeo Busturia Ea Elantxobe Ereño Errigoiti Forua Gautegiz Arteaga Gernika-Lumo Ibarangelu Kortezubi Mendata Morga Mundaka Murueta Muxika Nabarniz Sukarrieta



## BIZKAIA: ESKUALDEAK

ESKUALDEA	UDALERRIAK
Markina-Ondarroa	Amoroto Alesti Berriatua Etxebarria Gizaburuaga Ispaster Lekeitio Markina-Xemein Mendexa Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz Ondarroa Ziortza-Bolibar
Plentzia-Mungia	Arrieta Bakio Barrika Fruiz Gamiz-Fika Gatika Gorliz Laukiz Lemoiz Maruri-Jatabe Meñaka Mungia Plentzia Sopelana Urduliz



## GIPUZKOA: ESKUALDEAK

ESKUALDEA	UDALERRIAK
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	Hondarribia Irún
Deba Beherea / Bajo Deba	Deba Eibar Elgoibar Mendaro Mutriku Soraluze-Placencia de las Armas
Deba Garaia / Alto Deba	Antzuola Aretxabaleta Arrasate/Mondragón Bergara Elgeta Eskoriatza Leintz-Gatzaga Oñate
Donostialdea / Donostia-San Sebastián	Andoain Astigarraga Donostia-San Sebastián Errenteria Hernani Lasarte-Oria Lezo Oiartzun Pasaia Urnieta Usurbil



## GIPUZKOA: ESKUALDEAK

ESKUALDEA	UDALERRIAK
Goierni	Altzaga Arama Ataun Beasain Ezkio-Itsaso Gabiria Gaintza Idiazabal Itsasondo Lazkao Legazpi Mutiloa Olaberria Ordizia Ormaiztegi Segura Urretxu Zaldibia Zegama Zerain Zumarraga
Tolosaldea / Tolosa	Abaltzisketa Aduna Albiztur Alegia Alkiza Altzo Amezketa Anoeta Asteasu Baliarrain Belauntza Berastegi Berrobi Bidegoian Elduain Gaztelu Hernialde Ibarra Ikaztegieta Irura Larraul Leaburu Legorreta Lizartza Orendain Orexa Tolosa Villabona Zizurkil



## GIPUZKOA: ESKUALDEAK

ESKUALDEA	UDALERRIAK
Urola-Kostaldea / Urola Costa	Aia Aizarnazabal Azkoitia Azpeitia Beizama Errezil Getaria Orio Zarautz Zestoa Zumaia